


TXIN
PART

67

Jasangarritasuna
gure agendan dago



1. Gurutz Oiartzabal-ek, 50. urteurreneko abestiko hitzetan oinarrituta margotutako horma-irudia.

2. HAZIAK egitasmoaren baitan, LH6ko ikasleek laguntasuna, ezetz esaten ikasi eta barruko korapiloak nola askatu landu dute. Horretarako, hiru Askebide-tan trebatu dira: rapa eta DJa Sound System-eko Estepi eta Moro-rekin, gorputz-adierazpena Odei Astibia-rekin eta marrazketa Eider Eibar-ek. Azken honen tailerrean sortuta sei pertsonaiekin osatutako margolan ederrak apainduko du aurrerantzean jangelako horma.

HH eraldatzen	4
50 urteurreneko ospakizunak	6
EKI LHn	9
IKT akreditazioa	10
Sorkunderi elkarrizketa	11
Aritzi elkarrizketa	13
Inauteriak eta Ikastola Eguna	14
Gurasoak partaide	16
Urmendi Haur Eskola	18
Hatzak bete lan	21
Oiartzo	36
Ikasgai osagarriak	37
Eskuttun	39
Agenda 21 taldea	40
Laburrak	42

ARGITARATZAILEA

Hautzaro Ikastola
Elorrondo, z/g - 20180 Oiartzun
943 49 16 59
oiartzun@ikastola.eus
LG: SS-129/2001

DISEINUA ETA MAKETAZIOA
BIT&MINA**INPRIMAKETA**
ANTZA

Paper birziklatuan inprimatua

Amaitzen ari da Hautzaro Ikastolaren 50. ikasturtea. Ikasturte berezia izan da, ospakizunez betea, baina baita etorkizunari begira pausu oso sendoak emateko urtea ere.

Ikasturte hasieratik, 50. urteurrena ospatzeko ekitaldiek protagonismo berezia izan dute, merezitakoa, ez baitira 50 urte urtero betetzen. Ikastolarekiko sentimendua indartu eta Ikastolaren eta herriaren arteko lotura sendotzea izan dira ekitaldi horien helburu nagusiak. Eta esan genezake asmatu egin dela. Antolatutako ekitaldi guztiak jendetsuak izan dira, eta ilusio handiarekin eta jai-giroa ederrean bizi izan ditugu. Seguru asko, ospakizun horiek gutako askoren oroitzapenetan geratuko dira. Mila esker eta zorionak 50. urteurreneko lan-taldeari eta Ikastola osoari!

Ospakizunez gain, Batzar Nagusian, beste helburu garrantzitsu batzuk ere jarri genizkion ikasturteari: horien artean daude Ikastolaren komunikazioa hobetzea, bazkidetza aktibatzea eta, IKT erdi-mailako akreditazioa, Agenda21 aintzatespena eta KEI kalitate egitasmoaren zigilua lortzea; eta proiektu pedagogikoa berritzen jarraitzea. Arlo guztiak landu ditugu eta orain arteko auditorietan aintzatespenak erdietsi ditugu.

Zorionak, bada, gai hauek lantzen ibili zareten guztioi!



Haur Hezkuntza eraldatzen

Badira urte batzuk Haurtzaro Ikastola eta Ikastolen Federazioa Haur Hezkuntzaren inguruan hausnarketa egiten hasi zirela. Ikasturte honetan, pauso sendoak eman dira proiektua definitzeko, irakasleak trebatzeko eta espazio antolaketa berria diseinatzeko. Horrela, bada, 2017/2018 ikasturterako prest dago Haur Hezkuntzarako eredu pedagogiko berria.

Jakina da Haur Hezkuntzak duen garrantzia pertsonaren garapenean. Izan ere, bizitzako lehen urteetan zehar izandako esperientziek eragin zuzena dute etorkizunean. Horregatik, familiarekin lankidetzan, haurraren garapen osoa bideratzea da hezkuntzaren lehen etapa honen xede nagusia.

Haurraren garapenaren ikuspegitik, haurra ulertzeko modua berrikusi eta aldatu behar da. Non kokatzen da haurra? Zein da irakaslearen funtzioa? Zein da Haur Hezkuntzako ikaslearen profila? Galdera horiei erantzunez, ondorio interesgarriak atera ditu Haurtzaro Ikastolako Haur Hezkuntzako lantaldeak eta, datorren ikasturtera arte zain egon gabe, jada hasi da aldaketak egiten. Besteak beste, arratsaldeko saioetan geletako ateak zabaltzeko eta ikasleei gela batetik bestera joateko aukera eskaintzen zaie.

Ikaslea, bere garapenaren protagonista osoa

Konfiantza izan behar dugu haurraren berezko garapen ahalmenean. Bere jarduera autonomia ahalbidetu eta errespetatuz, haurrak berak izan behar du bere bizitzako protagonista, bizitzako lehen urteetatik hasita.

Haurra protagonista izatea nahi badugu, irakasleek laguntzaile izatera pasatu behar dute, eta ez gidari zuzen. Proposamenak egingo ditu irakasleak, baina ikasleak berak aukeratu du nora joan, zer ekintzetan parte hartu eta norekin jolastu.

Horregatik, ikasturte honetan zirkulazio librea bultzatu da arratsaldeetan, eta, datorren ikasturteari begira, Haur Hezkuntzako espazioa guztiz berrituko da. Jada, haurrak ez dira gelara banatuko, nahiz eta talde bakoitzak bere tutorea izaten jarraituko duen eta jarduera batzuk taldeka egingo diren, esaterako, psikomotritate saioak edo ingelesa.

Maila osorako espazio zabaleko guneak sortuko dira, paretarik gabeak, baina ez nolanahi antolatuak. Argiztapenarekin eta altzariekin jolastuz, gune desberdinak sortuko dira, eta haurra,



bere interes eta gogoaren arabera, libreki ibili ahal izango da gune batetik bestera. Gune horietan, ikaslearen motibazioa eta garapena bultzatuko duten egoera desberdinak planifikatuko dira. Izan ere, kontuan izan behar da haurrak beste kideekin dagoenean izandako iniziatiba, kooperazio eta elkarrekintza esperientzien bidez ematen dituela bere nortasuna eraikitze eta autonomia garatzeko lehen pausoak.

Esan bezala, maila bakoitzak bere espazio irekia edukiko du, baina zenbait momentutan, maila desberdinetako haurrek elkarrekin egoteko aukera ere izango dute. Hartara, adin desberdinetako haurrek elkarri laguntzeko eta elkarrengandik ikasteko aukerak sortuko dira.

Horretaz gain, aipatzekoa da ere espazioak ez direla eremu itxira mugatuko. Kanpora zabalik egongo diren espazioak ere izango dira, eta ikasleak ateratzeko aukera izango du. Kanpoko espazioak, hala ere, hesitura batekin itxita egongo dira, haurren segurtasuna bermatze aldera.

Ikastetxea, etxearen jarraipena

Espazio berrian, haurrentzako harrera guneak protagonismo berezia hartuko du. Izan ere, ikaslea Ikastolara pozik etortzea eta bertan gustura sentitzea oso garrantzitsua da haren garapenerako. Goizetan, lehenengo ordu erdian, haurra Ikastolan uzteko ordutegia malgua izango da; 09:00-09:30 bitartean, gurasoek nahi edo ahal duten garaian utziko dute haurra Ikastolan.

Une hori ahalik eta patxada handienaz bizitzea ona da eguna ongi hasi eta haurra lotura afektiboak hautsi gabe gelditzeko.

Bidenabar, tarte horretan, tutorearekin hitz egiteko aukera ere izango dute gurasoek, eta, hartara, esku-hartze zuzenagoa izango dute beren haurren egunerokoan eta hezkuntza prozesuan.

Irakaslea, laguntzailea

Irakaslearen jarduera egokitu egingo da espazio eta funtzionamendu berrira. Orain arte bezala, talde jakin baten tutore eta erreferentziako pertsona izaten jarraituko dute, baina eguneroko zereginak aldatu egingo dira. Espazioak irekiak izanik, une oro edukiko dituzte haurrak bistan, baina ezinbestean koordinazio eta informazio truke handiagoa beharko da mailako irakasleen artean.

Bestalde, nahiz eta ikasleak gogo eta interesen arabera mugituko diren gune batetik bestera, tutoreak saio gidatu batzuk proposatzeko aukera izango du, baita ikasleak zeregin batera edo bestera gonbidatzeko ardura ere.

50. urteurrenaren urtea urte biribila izan da Ikastolarentzat. Biribiltasun horretan kokatzen dugu HHko proiektu berritzaile hau, Haurtzaro Ikastolak herritar guztien eskura jartzen duena eta herriko haurrek disfrutatu ahal izango dutena. Haurtzaro Ikastola, Bizitzarako Hezkuntza.



50 urte ez direlako egunero

Haurtzaro Ikastolak 2016/2017 ikasturtean ospatu du 50. urteurrena. 14 pertsonako lantaldea 2016ko ekainean hasi zen ikasturte osorako ekintzak prestatzen. Taldean, irakasleak, ikasle ohiak, gurasoak, zuzendaritza taldeko kideak, Ikastolako zerbitzuetako langileak... daude.

Bi helbururekin hasi zen lanean lantaldea:

- Ikastolarekiko **sentimendua indartzea** gaur egungo komunitatean eta inoiz komunitate horren parte izan direnen artean.
- Ikastola herritik sortutakoa dela gogoratzea eta 50. urteurrena herritar guztiekin batera ospatzea.

Urteko egitaraua:

2016ko udaberria. Haurtzaro Ikastolaren 50. urteurrena irudikatzeko, logotipoen lehiaketa antolatu zen. Lehiaketa irekia izan zen. 14 lan aurkeztu ziren, eta guraso den Fabian Iraolak irabazi zuen. Ikastolako ikasle ohi Eneko Salaberria eta Larraitx Lasa eta 50. urteurrenako lantaldeko ordezkari Asmara Ortega izan ziren epaimahaikideak.

Ikastolako ikasle bakoitzak bere logotipoa egin zuen, HHTik hasi eta DBHraino. Ikasleen lan guztiekin erakusketa antolatu zen Ikastolako areto nagusian.

2016ko ekainaren 2a, Ikastola Eguna. Haurtzaro Ikastolaren 50. urteurrenako abestia aurkeztu zen. Abestiaren hitzak Antton Kazabonek egin zituen, eta musika, berriz, Xabi Solanok. Abestiaren grabazioan jende askok parte hartu zuen, besteak beste, Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Maider Zabalegi, Hesianeko Zuriñe Hidalgo, Vendettako Pello Reparaz eta Ikastolako zenbait haur eta irakasle. Grabazioan parte hartu zutenekin, bideoklipa egin zen.

2016ko abuztuaren 1a. Xanistebanetako jaien aurkezpen ekitaldian, 50 urtean egindako lana aitortu zion Oiartzungo Udalak Haurtzaro Ikastolari.

2016ko abuztuaren 2a. Gora Xanistebanak! Festa Batzordeak erabakita, Haurtzaro Ikastolaren 50. urteurrenako ospakizunak hasteko, jaietako txupinazoa botatzeko ohorea izan zuen Haurtzaro Ikastolak.

2016ko urriaren 23a. Egun osoko familia giroko jaia ospatu zen Oiartzungo plazan. Goizeko ekitaldian, Ikastolako lehen gurasoei, bi irakasleei eta Haurtzaro sortzeko baldintza gabeko ekarpenak egin zituzten oiartzuar guztiei omenaldi hunkigarria egin zitzaion. Duela 50 urte egindako apustuaren garrantzia azpimarratu eta eskerrak emateko baliatu zuen Oiartzungo herriak momentua. Arratsaldean, haurrentzako jolasak, familia jolasak, txokolatada eta erromeria izan ziren.



betetzen

2016ko abenduaren 3a, Euskararen Eguna. Ikastolako lehen egoitza izan zenaren kanpoaldean plaka bat jarri zen, "Hemen egon ziren Haurtzaro Ikastolako lehenengo gelak" dioena. Malen Oiarbide Gurrutxagak, 2016/2017 ikasturteko Haurtzaro Ikastolako ikasle gazteenak, haren guraso Oihana Gurrutxaga Zapirain eta Aritz Oiarbide Urruzolak, eta haren irakasle Igone Urkiak desestali zuten plaka. Eskuttun Euskara Taldeko kideek, dantzariak eta txalapartariak ere parte hartu zuten ekitaldian.

2016ko San Tomas egunean, Gabonetan, San Nikolas Txiki egunean eta **2017ko Santa Agedan**, 50. urteurreneko zapia soinean zutela ibili ziren Haurtzaro Ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoak.

2017ko urtarrilaren 24a. Ugaldetxoko Festa Batzordeak antolatuta, urteroko emanaldia eskaini zuten Pirritx, Porrotx eta Marimototsek Elorsoro kiroldengan. Ekitaldiaren amaiera aldera, Haurtzaro Ikastolako ikasle ordezkariak oholtzara igo ziren, Haurtzaroren 50. urteurreneko abestia abestu eta dantzatzera.

2017ko otsailaren 17a. Azken urteetan egin ohi denez, Iho-teei hasiera emateko, burrunba antolatu zen Ikastolatik plazara. 50. urteurrena ospatzeko, Ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoek zapia soinean zutela hartu zuten parte.

2017ko martxoaren 17a. Haurtzaro Ikastolak, Oiartzungo beste hainbat taldeekin batera, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatu nahi izan zuen. Emakumeek hezkuntzan egin izan duten lana eta jokatu izan duten papera bistartzeko asmoz, "Emakumea eta hezkuntza Gerra Zibiletik gaur arte" mahai-ingurua antolatu zen. Itziar Rekalde, EHUKo irakaslea, Jaione Ugaldebere, Haurtzaro Ikastolako irakaslea eta zuzendari ohia, eta Arantza Manterola, Haurtzaro Ikastolako lehen emakumezko lehendakaria, izan ziren hizlariak. Moderatzaile lanetan, Mirari Martiarena aritu zen.

2017ko martxoaren 26a, mendi martxa neurtua. Ikastolako Mendi Taldeak eta 50. urteurreneko taldeak bi mendi martxa neurtu antolatu zituzten, adin tarte desberdinetako haurrentzat. Eguraldi ederra izan zen, eta 200 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte. Ibilbideak amaitutakoan, Oiartzungo plazan bertan, Ikastolak eskertze orogarri bat eman zion Girizia Mendi Taldeari, beti egon dela prest Haurtzaro Mendi Taldeari laguntzeko. Ekitaldi xumearen ostean, hamaiketako eskaini zen bertaratu ziren guztientzat.

2017ko apirilaren 1a. Bertso bazkari herrikoa egin zen Alaia Martin, Jon Martin eta Ander Lizarralde bertsolari eta ikasle ohiekin. 70 lagun inguruk hartu zuten parte, eta Antton Kazabon eta Donibane Azkarate aritu ziren gai-jartzaile lanetan.





2017ko apirilaren 4a. Korrika Oiartzundik pasatu zen, eta, 50. urteurrena ospatzeko, Haurtzaro Ikastolako ikasleek eduki zuten lekukoarekin plazara sartzeko ohorea. Korrika Ttiki-n eta Korrikan bertan, 50. urteurreneko zapia eta kamiseta soinean zutela parte hartu zuten hainbat ikasle, irakasle eta gurasok.

2017ko maiatzaren 6a. Oroitzapenen jaialdia. Urteko ospakizun handiena izan zen. Goizeko ekitaldi instituzionalean, Haurtzaro Ikastolaren ibilbidea gogoratu zen, eta une hunkigarriak bizi izan ziren 50 urteetako promozioetako ordezkariak argazkia ateratzeko oholtzara igo zirenean. Ordezkar horien esku aztar-nak ere jaso ziren, horretarako propio prestatutako hormigoizko egituretan. Egurditik aurrera, jantokiaren goiko aretoan atondutako erakusketan, hainbat ikasle ohik beren espediente akademikoko argazkiarekin egindako oroigarri txartela jaso ahal izan zuten. Oroitzapenak berpizteko ariketa polita izan zen, ikasle ohiak elkartu eta irribarre asko sortu zituen. Egurdiko bazkarian 500 lagunetik gora elkartu zen frontoian eta, amaieran, Oroitzapenen Lehiaketako zozketa egin zen. Arratsaldean, askoren oroimenean geratuko den kontzertu bikaina eskaini zuten Etiam, Kepa Junkera & sorginak, Esne Beltza, Alaitz eta Maider, Huntza eta Gozategi taldeek.

Egun ederra izan zen, jendetsua, alaia eta gogoangarria.

2017ko maiatzaren 26a. Ipuin kontaketa ilustratuak antolatu ziren. 2-4 urte bitarteko haurrentzat, Lur Korta ipuin kontalaria eta Idoia Beratarbide marrazkilariak eskaini zuten emanaldia, Urmendi haur eskolan, eta 6-10 urte bitarteko haurrentzat, berriaz, Pello Añorga ipuin kontalaria eta Jokin Mitxelena marrazkilariak, udal liburutegian.

2017ko ekainaren 4a. Haurtzaro Ikastolako Dantza Taldeak eta 50. urteurreneko taldeak antolatuta, Ikastolako Dantza Taldearen emanaldi berezia antolatu zen. 50. urteurrena ospatzeko asmoz, Dantza Taldean ibilitako dantzari ohiek, Lartaun abesbatzak eta txistulari-taldeak ere parte hartu zuten.

2017ko ekaina. Haurtzaro Ikastolaren 50. urteurrena birlibiltzeko, 50 urteko historia jasotzen duen oroitzapenen liburu argitaratu zen.



EKI

LH 3. ziklora iritsi da

EKlren bitartez, Lehen Hezkuntzako 3. zikloan diziplinartekotasuna indartu eta sendotuko da.

EKI Ikastolen Elkarteak landu eta garatu duen material didaktikoa da. Haren helburua da ikasleak arlo desberdinetan barneratzen dituen jakintzak elkarren artean erlazionatu eta egoera desberdinetan erabiltzea. Orain arte, DBHn erabili izan da, eta 2016/2017 ikasturtean, 6. mailako lehen hiru hilekoan erabili zen. Oso emaitza onak jaso izan dira eta, datorren ikasturtetik aurrera, ikasturte osoan erabiliko dugu 6. mailan.

Konpetentzietan oinarritutako ikaskuntza


Oinarritzko hezkuntzaren xedea da ikasleak etorkizunerako prestatzea. Horretarako, oinarritzko jakintzak eta trebetasun praktikoak eskuratu beharko ditu, jarrera egokiak izaten ikasi beharko du, bere emozioak landu eta adierazteko gai izan beharko du, eta balio etikoak bereganatu beharko ditu, besteak beste.

Euskal curriculumean jasotzen denez, «pertsona konpetentea da egoera eta testuinguru zehatz batean eraginkortasunez aritzeko gaitasuna duena». Hau da, ez da nahikoa ikasleak jakintza bat eskuratzeari; hori bezain garrantzitsua da ikasitakoa noiz eta nola erabili jakitea.

Hiruhileko bakoitzean gai bat

Ikasleak etorkizuneko egoeretara prestatzeko, hiruhileko bakoitzean gai soziokultural jakin bat landuko da. Gaiak ikasleari gizarte arazo batekiko kontzientzia hartzen eta gizarte horretako kide aktibo dela ohartzen lagunduko dio. Gai horren inguruan landuko dira hiruhilekoko ikaskuntzak eta, aldi berean, erreferentzia da diziplina desberdinak elkartuko dituen egoera hautatzeko.

Jarduera guztiak modu ebaluagarrian landuak daude, ikaslearen garapen maila neurtu ahal izateko.



Egoerak lantzerakoan, gisa honetako kartelak osatzea eskatzen zaie ikasleei

«Mundua aldatzen ikusi dut»

6. mailako lehen ebaluazioko unitatearen egoera Gabonen ingurukoa izango da.

Iritsi dira Gabonak. Gabonetan gaude! Erosketak, kaleak eta dendak jendez beterik, koloreak, apaingarriak, argiak, irriak. Ikastolako oporrak, janari prestatetako etxean, opariak erosi, hartu eta eman. Zoriontasuna da nagusi Gabon garaian.

Baina, dirudienez, zoriontasuna ez da Gabon garaiko ekintza edo jokabideen ondorio bakarra. Gaiak hausnartzera gonbidatzeko, horma irudi bat bidali digu Udalak.

Guk horrela jokatzeko ote dugu Gabon sasoiari? Zein dira gure jokabideak eta haien ondorioak? Onak ala txarrak ote dira? Galderei erantzuteko, gure ohiturak ikertu beharko ditugu, eta zer ondorio dituzten jakin.

Horma irudiarekin batera, eskakizun bat ere egin digu Udalak: geuk jasotako datuetan eta ateratako ondorioetan oinarrituta, ekarpen bat egitea herritarren kontzientzia eragiteko. Horretarako, POSTERRAK egitea eskatu digu, eta Ikastolan eta herrian zabaltzea.



Heldutasun Teknologikoaren erdi mailako akreditazioa lortu du Haurtzarok


2017ko urtarrilaren 17an egin zen Batzar Nagusian, aurtengo ikasurteko helburu estrategikoak onartu ziren, tartean, Ikastolak «Heldutasun Teknologikoaren erdi mailako akreditazioa» lortzearena.

Ikastolan IKT heldutasuna lantzea giltzarri izan da IKTen erabilera egokia lortzeko. Hasiera batean, ikasle zein irakasleek ordenagailuan landutako materiala norberarentzat soilik edukitzen zuten, eta, lanketa horri esker, dokumentu horiek guztientzat eskuragarri jartzea lortu da, betiere, sarera pasahitz bidez sartuta.

Erdi mailako akreditazioa erdietsia

Haurtzaro Ikastolaren Heldutasun Teknologikoa neurtzeko, otsailaren 16an jaso genuen IKT ikuskariaren bisita. Aurre auditorian oso lan ona egiten dela azpimarratu zuen IKT ikuskariak, eta erdi mailako akreditazioa eman zigun, aldi berean aitortuz jadanik gauzatzen zirela goi mailako akreditazioko hainbat prozesu.

Ikastetxeen Heldutasun Teknologikoa hiru mailatan neurtzen da:



Maila	Ezaugarriak
Hasierako maila	Kudeaketako dokumentuak digitalak dira. Irakasleen % 80 inguruk eduki behar dituzte beren laneko dokumentuak euskarri digitalean. Dokumentu horiek norberak bere ordenagailuan ditu, baina ez ditu gainerako kideekin partekatzen. Ikastetxean ez dago sare digitalik.
Erdi maila	Euskarri digitalean ez ezik, gainerako lankideekin partekatzeko moduan ere badaude dokumentuak. Sarean lan egiten da, eta Ikastolako edozein ordenagailutatik sar daiteke sarera, bakoitza bere pasahitzarekin. Bestalde, ikasleekin euskarri digitalean egiten diren lanak programazioan sartuta egon behar dira, eta irakasle bakoitzak gutxienez jarduera bat sortu behar du euskarri digitalean. Maila honetan prozesuak ere digitalizatuta egon behar dira.
Goi maila	Ikastolako ordenagailuetatik ez ezik, kanpoko edozein ordenagailutatik ere sarbidea eduki behar da Ikastolako sarera, bakoitza bere pasahitzarekin. Irakasle eta langileek ez ezik, gurasoek ere sarbidea eduki behar dute sarera, ikaslearen notak, asistentzia eta gisa horretako oharren segimendua egiteko.

Haurtzaro Ikastolan lanean jarraituko dugu, IKT prozesuak hobetzen eta ikasten.

Zorionak ikasle, irakasle eta langile guztiei! Zorionak, bereziki, Ikastolako IKT taldeari!





Zuzendaritzaren eginkizun nagusietakoa etorkizuna ikustea da

Izko Lekuona, Ixiar Lekuona, Pili Lizaso eta Sorkunde Lekuona, 2016/2017 ikasturteko zuzendaritza-taldeko kideak.

Hamabi urtez zuzendari izan ostean, Kontseilu Errektoreak horrela erabakita, Sorkunde Lekuona Sagarzazuk zuzendaritza utziko du. Hamabi urte hauetako balorazioa egiteko bildu gara harekin.

Hamabi urtez izan zara zuzendari. Zer balorazio egiten duzu 12 urteko ibilbideaz?

Balorazioa hitz batean egin beharko banu, positiboa izan dela esango nuke. Lan asko egin dugu nik eta nire taldeak 12 urte hauetan. Zenbait momentu oso zailak izan badira ere, haiek ahaztu gabe betiere, onekin gelditzen naiz.

Nola gogoratzen duzu zuzendaritza hartu zenuen garaia?

Kontseilu Errektoreak zuzendaritza hartzea eskaini zidanean, garbi nuen baietza esatearen ardura zenbatekoa zen, ikaragarria. Aurrez ere izana nintzen bi urtez zuzendari, eta garbi ikusia nuen Ikastolan zerbait egiteko gutxienez 4 urte aritu behar nuela zuzendaritzan. Etxekoekin hitz egin ondoren baietza eman nuen.

Momentu hartan Pepi Arruabarrena eta Jaione Ugaldebererekin osatu nuen taldea, lankide bikainak biak. Ikastolaren diagnosian bat egiten genuen eta taldean urte dezente aritu ginen. Ondoren, Pepiren aurrejubilazioa iritsi zenean, Lide Martiarena, Agurtzane Zubizarreta eta Izko Lekuona izan dira LHko ikasketaburuak, eta Josune Saizar eta Pili Lizaso, berriz, DBHkoak. Guztiekin talde lanean aritu naiz; helburuak adostu izan ditugu eta, ondoren, haiek lortzeko lan egin. Talde guztietan aritu izan naiz oso gustura eta, poliki-poliki, Ikastola eraldatu dugu. Taldekide oso onak izan dira

guztiak, oso langileak. Haiekin batera, Agustin Vital administraria eta, bukatzeko, Arantza Manterola eta Iñaki Irastorza lehendakari ohiak aipatu nahi ditut, Ikastolaren kudeaketan asko ikasi dut haiengandik, eta niretzat bi erreferente izan dira. Nire eskerrik berroenak eman nahi dizkiot hemendik bakoitzari.

Zein zen Ikastolaren egoera orain dela 12 urte?

Garai hartan Ikastolan, orain bezala, lan asko egiten genuen irakasleok, baina lan hura ez zegoen bateratuta eta sistematizatuta; ziklo bakoitzak bazuen bere nortasuna, baina proiektu bat izate horretan hutsuneak genituen. Bestalde, Ikastola kooperatibaren norabidea momentuko zuzendaritza taldearen arabera definitzen zen. Osatu genuen zuzendaritzaren helburu nagusiak hiru izan ziren:

- Ikastola herriko proiektu bat izatea, koordinatua, ordenatua, bateratua, 3 urtetik 16 urtera.
- Ikastolaren iparra elkarrekin definitzea eta erabakitzea, guztiok elkarrekin bide hori egiteko.
- Denboraren kudeaketa hobetzea lana sistematizatuz eta partekatuz.

Zuzendaritzaren eginkizun nagusietakoa etorkizuna ikustea da, eta harantz eramatea komunitateko kideak. Askotan, irakasleek ez zuten ulertzen zergatik egin behar zituzten hainbat gauza modu horretara, eta egoera horiek kudeatzea oso zaila izan da. Adibidez: plan estrategikoa egitea, ebaluazio irizpideak definitzea... gaur egun hain egunerokoak diren tresnak. Denborak erakutsi du egingdako bidea egokia izan dela.



Gaur egun, nola ikusten duzu Ikastola?

Gaur egun, Ikastola beste momentu batean dago; plan estrategikoak egiten ditugu 4 urtez behin. Zuzendaritzatik gidatutako bideaz gain, lege eta prozedura asko jarri dira martxan ikuskaritzatik ere, nahitaez bete behar direnak; horrek ere Ikastola askoz ere egituratuagoa egotea eskatzen du. Eta lan hori ere egin dugu urte hauetan.

Pedagogikoki, momentu honetan gure ikastolak hezkuntza eredu aurreratua eskaintzen du, puntakoa; ikasleen irteera profilak definituak ditugu, proiektu pedagogiko berritzaileak dira gureak (Haur Hezkuntzakoa, adibidez), baliabide pedagogiko berrituak ditugu, eta irakasleen prestakuntza etengabekoa da maila guztietan. Taldean aritzen gara lanean profesionalak, eta taldean egiten dugu aurrera. Etorkizuneko erronkei aurre egiteko gai den erakundea da gurea. KEI egitasmoaren bidez kudeatzen dugu Ikastola gaur egun, eta hori egitura eta funtzionamendu onaren adierazlea da. Ekainaren bukaeran auditoretza egingo dugu.

Zuzendaritza talde honen lanaren erdigunean ikaslea egon da, hasiera-hasieratik. Beti, pertsona. Ikaslea zaintzen saiatu gara etengabe. Bizikidetzari garrantzi handia eman diogu eta, horregatik, gure curriculumean txertatuak ditugu Golden 5, Kiva, Haziak... proiektuak. Uste dut bailarako ikastetxeen artean erreferenteak garela honetan ere. Bestalde, ikasleen asebetetzea 3 urtez behin neurtzea erabakia dugu, eta Ikastolari buruz duten iritzia oso ona dela adierazten dute.

Eta ikasle bakoitzaren atzean familia bat dago, guztiak ezberdinak, baina Ikastolaren helburu berdinarekin: seme-alaben hezkuntza euskalduna. Beti saiatu gara gurasoak Ikastolako parte senti daitezen; harrera ona eginez, entzunez, beren proposamenak jaso ditugu, laguntza eskatu dutenean laguntzen ahalegindu gara, Ikastolako bizitzan parte hartzera gonbidatu ditugu, eta hori momentuan egiten saiatu gara. Oso garrantzitsua da niretzat gurasoek parte hartzea Ikastolan. Aitortu behar dut guraso guztiekin ez dugula lortu helburu hori; gurasoen asebetetzea ere etengabe neurtzen dugu, taldean lan egiten dugu, eta gehienek Ikastolari buruz duten iritzia oso pozgarriak dira. Beraz, ikuspegi horretatik ere pozik uzten dut kargua.

Horren guztiaren adierazle da urtez urte Ikastolan matrikulatzen den ikasle kopurua.

Eta zein ahulgune ikusten dizkiozu?

Ahulguneak ere baditugu, zoritxarrez. Nagusia Hezkuntza Sailarekiko dugun menpekotasun ekonomikoa da: ikasle ratioak oso altuak dira; beraz, diru gutxi jasotzen dute ikastolek, eta lan berdina askoz ere irakasle gutxiagorekin egin behar dugu Ikastolan. Egoera horrek ezinegona sortzen du. Esfortzu handia egin behar da Ikastolan administrazioaren eskola publiko baten parera iristeko. Eredu diferentea eskaintzea denez Haurtzaro Ikastolaren helburua, langileek egun behar dugun esfortzu hori eguneroko lanean handia da, askok irudikatu ere egiten ez dutena.

Baina egin dugu, antolakuntza mailan egitura sendoa lortu dugu, aldaketa esanguratsuak egiten ari gara lan hori errazago egiteko; beraz, aurrerantzean bide horretatik jarraitu beharko du zuzendaritza talde berriak oraingo lorpenak mantentzeko eta hobetzeko. Etorkizunari begira pauso oso sendoak eman ditugu Ikastolan.

Pertsonalki, nola bizi izan duzu zuzendari kargua?

Zuzendari karguak, txanpon batek bezala, bi alde ditu: zuzendaria eta pertsona bereiztea oso zaila egiten zaio askori, bereziki Oartzunen moduko herri txiki batean; askoren ustez, zuzendaria da Ikastolako erabakiak hartzen dituenak. Beraz, etengabe ikusgai, guztion begiradapean egotea ere badakar zuzendari izateak. Erabakiak gustukoak direnean, gustura gaude, baina gustukoak ez direnean (eta horrek ez du esan nahi desegokia izan denik), gezi batzuk iristen dira zenbaitetan leku horretara, eta horrelakoetan zauri sakonak ere eragiten dituztela aitortu behar dut. Nik garbi dut hori karguaren barruan dagoela, eta egoera horiek guztientzat ahalik eta modu osasuntsuenean kudeatzen saiatu naiz.

Izan du beste alde pozgarri eta aberatsa; harreman asko egin ditut, Ikastola proiektuaren alde beste modu batera lan egiteko aukera eman dit, pertsonalki oso aberatsa izan da, asko ikasi dut. Estimatu sentitu naiz. Eta horrek poz handia sentiarazten dit.

Datorren ikasturtean Ikastolan jarraituko duzu?

Bai, noski. Berriz ere gela bateko ardura hartzera itzuliko naiz. Zuzendari izanik beti esan diet irakasleei Ikastolako lan guztiak direla oso garrantzitsuak, guztiak ondo egitea dela beharrezkoa Ikastolak aurrera egin dezan. Eta hori izango da nire helburua: gelako lanean murgildu eta ikasitako guztia praktikan jartzea. Ilusio eta gogo handia dut horretarako.

Bukatzeko, ikasleei, irakasleei, zerbitzuetako langileei, gurasoei eta herriko erakundeei ere eskertu nahi diet 12 urte hauetan nigan jarri duten konfiantza eta elkarlanean aritzeko eman didaten aukera.

Mila esker guztiei!

Aritz Gonzalez:

«Hautzaro Ikastolan ere, belaunaldi berriari iritsi zaio lekukoa hartzeko unea»



2017/2018 ikasturtea zuzendari berriarekin hasiko du Hautzaro Ikastolak. Aritz Gonzalez Arruabarrena izendatu du Kontseilu Errektoreak datozen lau urteetarako zuzendari.

Roxali Otegi, Argiñe Oiarzabal, Aritz Gonzalez eta Xabi Salaberria, 2017/2018 ikasturteko zuzendaritza-taldea.

Nola hartu duzu izendapena?

Ondo, ilusioz eta gogoz. Ikastolako ikasle izana naiz. Gure gurasoak, gainera, Ikastola ondoan bizi dira, eta nire hautzaroa Ikastolari oso lotuta egon da, nahiz eta ikasketa garaian ez nuen inoiz pentsatuko Ikastolako zuzendari izango nintzenik. Baina eguna iritsi da, urte batzuk daramatzat Ikastolan lanean, eta gogotsu nago nire ekarpenak egiten segitzeko.

Zein dira zure erronkak?

Gure lanaren abiapuntua 2015eko abenduko Batzar Nagusiak onartutako Plan Estrategikoa da. Guztion artean landu eta adostutako plana da, eta hura izango da gure lan ildo nagusia.

Bestalde, 50 urte hauetan, Hautzarok ekarpen handiak egin dizkio Oiarzuni, eta erreferente izan da Ikastolen Elkartean bertan ere. Elkarlanerako gaitasuna erakutsi du, eta aurrerantzean ere horrela izatea nahi dugu.

Azkenik, ikastetxe batek beti egokitu behar du mementoko gizartera, eta erronka handia da gaur egungo familien beharretara iristea. Ikuspegi pedagogikoa ez da nahikoa; denen artean egin behar dugun lan bat da. Zentzu horretan, gizartea irakurtzen jakitea garrantzitsua da.

Nork osatuko duzue zuzendaritza taldea?

Haur Hezkuntzako ikasketaburua Roxali Otegi izango da; Lehen Hezkuntzako, Xabi Salaberria; eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Argiñe Oiarbide.

Talde gaztea da.

Bai. Iruditzen zait, Hautzaro Ikastolan ere, belaunaldi berriari iritsi zaiola ardurak hartzeko garaia, eta guri dagokigu orain lekukoa hartzea. Hala ere, ikastola honetan esperientzia eta jakintza handiko pertsona asko daude, eta haien guztien laguntza izan nahi genuke. Guztion artean lan egin beharko dugu, bakoitzak bere ardura eta lekutik. Ardurak banatuta daude, eta zuzendariak haiek koordinatu behar ditu. Konfiantza jarri behar dugu elkarrengan.

Zein uste duzu direla Hautzaro Ikastolaren indarguneak?

Komunitate handia da Hautzarokoa, eta uste dut hori dela gure altxor handienetakoa. Irakasle talde handia, ikasleak, gurasoak... Hautzarok kooperatiba izaera du, eta badakigu zer den elkarlanean jardutea. Datozen urteetan ere horrela jarraitzea espero dut.

Inauteriak eta Ikastola Eguna, aparteko bi egun



Inauteriak eta Ikastola Eguna ikasturtero ospatzen ditugu, eta oso ospakizun bereziak dira. Ikastolako komunitate osoak hartzen dugu parte, eta benetan izaten da berezia Ikastolan bi egun horietan sortzen den giro alai.

Aurten, eguraldia lagun izan ez badugu ere, ez dugu hutsik egin, eta emanaldi politez, une hunkigarriez eta lagunarte ederraz gozatu dugu.





Talde Bideratzailea eta gurasoen gunea sortuko dira

2016/2017 ikasturtean, Ikastolako gurasoen parte-hartzea sustatu eta hobetzeko asmoz, hausnarketa sakona egin dute Kontseilu Errektoreko, Hezkuntza Batzordeko eta Bizikidetza Behatokiko hainbat gurasok. Egindako lana kontatu eta ondorioak partekatzeko, lau guraso elkartu ditugu: **Igor Altolaguirre**, Hezkuntza Batzordeko kidea; **Iraia Etxebeste**, Kontseilu Errektoreko ordezkaria; **Leire Oiartzabal**, Hezkuntza Batzordeko kidea; eta **Iñaki Uzkudun**, Bizikidetza Behatokiko kidea.

Ikasturte osoa eman duzue hausnarketan. Zein zen abiapuntua?

Iraia: Lehen bilera irailean egin genuen, lehendakariak deituta. Bilera hartan planteatu zitzaigun bazkideztaren inguruan hausnartzeko beharra zegoela. Gurasook haurrak Ikastolara ekartzearekin batera, kooperatiba bateko kide garela jabetu behar dugu, eta horrek, eskubide batzuez gain, betebeharrak eta inplikazio batzuk ere badakartza.

Lehen bileran lehendakaria, zuzendaria, idazkaria eta Kontseiluko Errektoreko eta Hezkuntza Batzordeko gurasok elkartu ginen. Hortik aurrera, Kontseilu Errektoreko, Hezkuntza Batzordeko eta Bizikidetza Behatokiko guraso ordezkariak ibili gara lanean.

Igor: Guraso ordezkarien bilerak eraginkorrak izateko beharra ere bazegoen. Guraso batzuen inpresioa da iradokizunak egin bai, baina bidean galdu egiten zirela.

Leire: Kontua da gai bakoitzak bere ibilbidea egin behar duela eta, maiz, prozesuak nahi baino geldoagoak izaten direla. Beste batzuetan, gaia ebatzi izan da, baina ez da erabakiaren berri eman eta, ondorioz, guraso ordezkarien bileran berriz ere gaia errepikatu izan da.

Iñaki: Bizikidetzarako ere oso garrantzitsua da gurasoen parte-hartzea aktiboa izatea. Ikerketek frogatu dute, zenbat eta gehiago inplikatu gurasoak Ikastolako erabakietan eta ekintzetan, orduan eta hobea dela giroa, handiagoa ikaslearen motivazioa, eta aberatsagoa elkarbizitza. Zentzu horretan, iruditzen zaigu oso garrantzitsua dela gurasoak jabetzea Ikastola ez dela eremu itxi bat eta guk ere badugula zer esana eta zer egina.

Zein zen helburua, zuen asmoa?

Igor: Hausnarketak bi helburu zituen. Alde batetik, geletako guraso ordezkarien funtzioa ongi definitu nahi zen, beraien eginkizunak zehaztu eta gaiak lantzeko bidea zein den argitu. Bestalde, guraso berrientzat harrera protokolo bat lantzeko gogo ere badago, guraso berriak Ikastolaren egituraren koka daitezkeen eta parte hartzeko zein bide duten jakin dezaten.

Nolako prozesua izan da?

Iraia: Prozesu oso aberatsa eta emankorra izan da. Lehen hiru bileretan asko hitz egin genuen, esperientzia desberdinak jaso genituen, eta, hortik abiatuta, gure proposamenak landu genituen. Landutako proposamenak geletako guraso ordezkariarekin partekatu genituen, eta, guztien artean, hainbat ondoriotara iritsi ziren.

Eta zein izan dira ondorioak?

Iraia: Berrikuntza nagusia izango da **Talde Bideratzailea** sortuko dela. Talde horretan egongo dira Hezkuntza Batzordeko, Kontseilu Errektoreko eta Bizikidetza Behatokiko gurasoak. Gurasoen kezka, asmo eta gai guztien segimendua egingo duen taldea da. Ez du esan nahi erabakiak hartuko dituenik. Koordinazio batzorde bat izango da, izenak berak dioen bezala, gai bakoitza dagokion talde edo batzordera bideratuko duena.

Leire: Argi utzi behar da ere Talde Bideratzaileak ez duela proposamenik egingo. Gaiak gurasoek landu beharko dituzte, eta laguntza edo iritzia behar dutenean joko dute Talde Bideratzaileari. Adibidez, norbaitek jangelaren inguruan proposamen bat egin nahi badu, beste guraso batzuekin gaia lantzeko eta proposamen zehatza egiteko eskatuko zaio eta, ondoren, Talde Bideratzaileak dagokion organora eramango du proposamena.



Igor: Bestetik, egitura formalaz gain, **gurasoak biltzeko gune fisiko bat** ere sortuko da. Udan egingo den obra baliatuz, Ikastola Egunean txosna gisa erabiltzen den eremua gurasoentzako bilgune bihurtuko da. Geletako guraso ordezkarien bileretara guraso ordezkariak soilik etorri ohi dira eta, gainera, modu formalean lantzen dira gaiak. Nahiko genukeena da gune berria espontaneoagoa izatea, gurasoek dituzten ideiak eta kezak libre landu ahal izateko gune bat izatea.

Duela urte batzuk egon zen horrelako gune bat, ezta?

Iñaki: Bai, egon zen horrelako espazio bat, baina, dirudienez, gutxi batzuen elkargune bilakatu zen. Guk ez dugu espektatiba handiegirik egiten, baina irudikatzen dugu gune ireki bat izatea eta bertatik lanketa desberdinak ateratzea; tailerrak, hitzaldiak... Parkean bururatzen zaizkigun ideia horiek gauzatzeko gune izatea nahiko genuke. Irailetik aurrera jarriko da martxan, eta ikusiko dugu zer ematen duen.

Iraia: Guraso guztiek ditugu gure kezak eta interesguneak, eta, maiz, gure ingurukoekin soilik partekatzen ditugu. Gurasoen bilgune horrekin, interes berak dituzten gurasoak elkartu eta ekintzara pasatzea nahiko genuke. Eta zergatik ez, Ikastolako komunitatearentzat ez ezik, herrira begira ere ekintzak proposatu.

Leire: Esan behar da ere, haurrak handitu ahala, gurasoen arteko komunikazioa jaisten doala. Haurra HHn dagoen bitartean ohikoa da gurasoak parkean elkartzea, baina gero eskolaz kanpoko ekintzak hasten dira, haurrak autonomoago bihurtzen dira, eta ez dugu aukera handiegirik izaten elkartzeko. Gai desberdinak lantzea gurasoak elkartzeko aitzakia bat ere izango da.

Nola koordinatuko dira guraso ordezkarien bilerak, Talde Bideratzailea eta gurasoen bilgunetik sor daitezkeen ekintzak?

Igor: Hasteko, oso garrantzitsua da bilera guztiak koordinatzea, ez bi bilera egun eta ordu berean izateko. Horrez gain, guraso ordezkarien kasuan, lehen bileratik argi eduki behar dugu zein diren urteko helburuak.

Iraia: Bestalde, Talde Bideratzaileak koordinatzaile bat izendatuko du. Koordinatzaileak guraso ordezkarien bileran parte hartuko du, eta bi taldeen arteko komunikazioa bideratuko du.

Demagun guraso batek gurasoentzako ikastaro bat antolatu nahi duela. Zein bide hartu behar du? Nora jo behar du?

Igor: Gauza berriak egiteko gogoz dagoen gurasoa ekintzara pasatzea nahiko genuke. Inoren zain egon gabe, elkartu dadila beste guraso batzuekin gurasoen bilgunean eta landu ditzala proposamen zehatzak.

Iñaki: Orain zer gertatzen da? Lehenik, guraso ordezkariari aipatzen zaio. Ondoren, guraso ordezkariaren interesaren arabera, gaia guraso ordezkarien bileran aipatuko da, eta aukera handiak daude ideien ibilbidea bilera horretan amaitzeko. Irailetik aurrera, zerbait egin nahi duenak gurasoen bilgunean elkartu eta bertan landu ahal izango du intereseko bere gaia.

Iraia: Lanketa egina dagoenean, egokiena litzateke Talde Bideratzaileari jakinaraztea eta ekimena guraso bilgunearen ize-nean egitea. Azken finean, beste tresna bat eskainiko da orain arte gauzatu izan ez diren hainbat ideia gauzatzeko.



Praktiketako ikasleak Urmendi Haur Eskolan

Aurtengo ikasturtean ere, izan ditugu gurean practicuma egitera etorri zaizkigun ikasleak. Hauen artean, Alex Ugalde (hernaniarra) eta Mikel Leonet, Mirari Urdapilleta eta Olatz Sarasti (oiartzuarrak). Hemen izan ditugu denboralditxo batez gure Haur Eskolako egunerokoan murgilduta eta solasalditxo bat egin dugu elkarrekin.

Zein ikasketa ari zarete egiten?

Bi ikasle, Eskoriatzako Mondragon Unibertsitatean ari gara Haur Hezkuntzako ikasketak burutzen eta beste bi berriz, Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastolan ari gara Haur Hezkuntzako Goi Mailako zikloan.

Nolatan iritsi zarete Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergora praktikak egitera?

O.S: Bertan ibilia naizelako.

M.U: Ni, Goi Mailako zikloa burutzen nabilen Ikastolan, oso ongi hitz egiten digute Urmendi Haur Eskolaz. Bere hezkuntza proiektua dela eta, eredugarritzat hartzen dute. Niri, oiartzuarra izanik, leku ezin hobea iruditu zitzaidan praktikak bertan burutzeko. Bertako hezitzaileekin ikasteko, nire jakin mina asetzeko eta nire ibilbide profesionala osatzeko.

A.U: Aurretik, bi praktikaldi eginak nituen, lehenengoa, Hernanin eta bigarrena, Donostian. Oraingoan, beste herri batean egin nahi nituen, egoera berri bat ezagutuz nire burua profesional moduan aberasten jarraitzeko. Oiartzun herriarekin badut lotura, bertako jendearekin harreman ona baitut, eta honek bultzatu ninduen bertan egitera. Honetaz gain, zentroari dagokionez, Ikastola batean egin nahi nituen; batetik, bertako funtzionamendua ezagutzeko, eta bestetik, nire burua ezagutarazteko.

M.L: Lehen Hezkuntzako graduan zehar, hiru praktikaaldi burutu ahal izan nituen; Lezo Herri Eskolan eta Zizurkilgo San Millan eskolan (eskola ttikia), proiektu pilotu berritzaile batekin jarduteko aukera izan nuen bertan. Azken urtean berriz, atzerrian egin nituen praktikak, Argentinan hain zuzen ere. Eskola eredu anitz horiek ikusi eta bizitu ostean, herrira itzultzeko ordua zela iruditu zitzaidan.

Zein eraikinetan zaudete? Zenbat denborako?

O.S: Karrikan. Hilabete egin dut eta ez ditut bertan bukatuko, kanpora bainoa nire praktika aldia bukatzera. Poloniara.

M.U: Ni, Urmendi eraikinean nago, ikasturte hasieran hilabete batez egon nintzen, hain zuzen ere, egokitzen ari naren aldia. Orain, beste hilabetez egongo naiz ordutik hona haurrek emandako aldaketaz jabetu eta hauek behatzeko asmoz. Maiatzean, Italian emango diot amaiera nire praktikaaldiari.

A.U: Haurtzaro Ttikin ari naiz. Bigarren praktika aldia dut hau eta oraingoan hiru hilabetez izango naiz, martxotik maiatzera arte.

M.L: Orain, Urmendi Haur Eskolan nabil praktiketan, Karrikako eraikinean hain zuzen ere. Praktika aldi hau bi zatitan banatuta daukat, azaroa eta abendua igaro nituen eta etenalditxoaren ostean berriz, hemen dihardut, otsailean hasi eta martxoa amaitu bitartean.

Zergatik aukeratu zenuten 0-3 adin tarte hau praktikak egiteko?

O.S: Horrela egokitu zitzaidalako eta oso gustura egon naiz.

M.U: Nire ikasketak 0-3 zikloarekin lotuak daude eta ondorioz, adin tarte honetan egin behar nituen praktikak. 1-2 urte bitarteko haurrekin jardun dut eta oso gustura egon naiz. Izan ere, gertuko eta konfiantzazkoa baita Haur Eskola hau.

A.U: Aurreko bi praktikaaldiak 3-6 zikloan egin nituen eta ondorioz, oraingoan, 0-3a ezagutu nahi nuen. Gainera, adin txikiko haurrak asko gustatzen zaizkit eta banuen gogoia haien bitartez ikasteko. Hala ere, onartu behar dut fardelak aldatzen ikasi nahi nuela, ez bainuen nahi nire ikasketak hau landu gabe amaitzerik.



M.L.: Bigarren gradua izanik, praktika aldi bakarra geratzen zait Haur Hezkuntzan egiteko. Hori kontuan harturik, ez zen erabaki erraza izan zentro aukeraketarena. Hala ere, adinaren kontua nahiko argi neukan, txikienekin jarduteko gogoia nuen. 0-3 adin tarteak haurraren garapenean daukan garrantzia kontuan hartuta, jakin min handia sortzen zidan eta Urmendikoa aukera ezin hobia izan zitekeela otu zitzaidan. Mila eta bat galdera neuzkan etapa honi lotuta.

Zer azpimarratuko zenuke zentro horretatik?

O.S.: Karrikako Iturburu etxea txikia eta oso familia artekoa dela.

M.U.: Nik hezitzailearen motibazio, profesionaltasun eta konfiantza alderdiak azpimarratuko nituzke. Hezitzaileek gurasoeekin duten elkartasuna ere aipatuz. Esan beharra dago, Urmendi eraikinak eskaintzen dituen baliabideak ere, azpimarratzekoak direla.

A.U.: Haurtzaro Ttikin bi gauza garrantzitsu; bata, irakasle eta langileen arteko harremana eta bestea, hobetzen jarraitzeko gogoia. Biak lotuak datoz. Hobetzeko gogo eta intentzio handia ikusi dut, metodologia hobetzeko artikulatu desberdinak irakurrituz eta gela aberasteko material berriak sortuz. Eta hau egiteko, ezin bestekoa da talde lana, helburu bera lortzeko guztiek norabide berean lan eginez.

M.L.: Urmendi Haur Eskolako eraikin nagusiari dagokionez, instalakuntza aldetik oso ongi hornitua dago, kanpoko espazioa oso egokia da, tailer gela, psikomotrizitate gelak... Alde horretatik Karrikako eraikina ez dago hain hornituta, baina, badu bere alderdi positiboa noski. Aparteko auzo honetan dagoen lasaitasuna eta haurrekin kalera beldurrik gabe irteteko sententzia horrek ez du parekorik, horixe azpimarratuko nuke zentro honetatik.

Esperientzia honi dagokionean zer esango zenuke?

O.S.: Asko ikasi dudala eta gustura egon naizela.

M.U.: Oso esperientzia ona iruditu zait, asko ikasi dudana esperientzia. Hezitzaileengandik ikasteaz gain, haurretatik ere asko ikasi dut, egunerokotasunean arituz. Azken batean, guztiok baitugu zerbait albokoari irakasteko.

A.L.: Oso esperientzia atsegina eta aberasgarria izan da niretzat. Batetik, oso jende jatorria eta lagunkoia ezagutu dut, eta honek gauzak asko erraztu ditu. Bestetik, profesional eredu garriak izan ditut eta hauei esker, gauza asko ikasteko aukera izan dut.

M.L.: Izugarri disfrutatu dut, ezin dut deskribatu zenbat ikasi dudana oso denbora gutxian. Niri pertsonalki ate berri bat ireki zait etapa hau deskubritzerakoan, beste edozein adinetan baino gehiago erreparatzen zaio haurraren garapenari eta horrek interes handia piztu dit, betetzen nauela ikusi dut. Gainera, hiru adin tarteetan jarduteko nire eskaera onartu zuten eta horri esker 0-3 adin tarte sakonago ezagutzeko aukera izan dut.

Bizipen honen inguruan, zein bost hitz aipatuko zenituzke?

O.S.: Konfiantza, elkartasuna, maitasuna, ikasketa eta gertutasuna.

M.U.: Alaitasuna, natura, behaketa, konfiantza eta profesionaltasuna.

A.U.: Politia, pozgarria, atsegina, profesionala eta aberasgarria.

M.L.: Esperimentazioa, jolasa, garapena, emozioak eta gozamena.

Bukatzeo, gure Haur Eskolaren inguruan zer esango zenuke?

O.S.: Lan handia egiten duzuela, oso ongi prestatuak zaudetela eta ikasten dela bertan. Guztia, haurrengan pentsatuz egiten duzue eta hori aberasgarria da.

M.U: Oiartzun herria zorte handiko herria dela esango nuke, Urmendi bezalako Haur Eskolak ez direlako edonon aurkitzen. Bertan dauden haurrak hezitzaile ezin hobeen eskuetan daude eta horrek etorkizuneko herritarren gain eragina izango duela uste dut.

A.U: Amaitzeko esan, oso gustura egon naizela praktika aldi honetan eta asko ikasi dudala. Metodologia aurrerakoa iruditu zait, eskola tradizionalatik at, eta oraindik ere, hobetzeko gogoz. Eta hau beharrezkoa da, eskola batek aldatzen eta hobetzen jarraitu behar baitu beti, gizartearen aldaketek erantzunez.

M.L: Instalakuntza, espazio eta baliabide aldetik oso hornituta dago zentroa. Horretaz gain, irakasleriari eta metodologiari erreparatuz, oso eguneratuta ikusten ditut. Irakasle askok formazio oso zabala daukatela erakutsi didate eta etengabe ikasteko gogoz jarraitzen dute hala ere. Metodologiari dagokionez, haurren mugimendu autonomo eta askearen aldeko apustu handia egin dute eta haurrak ez ezik, gurasoak ere hezten dituztela konturatu naiz. Guztiz bat nator Haur Eskolako gauza askorekin. Hona hemen nire oparitu bat (Lazkao Txikiren doinuarekin):

Ama barruan sortzen hasten da
polik-poliki haurra
lehen lau hanketan, gero, eserita
indartzen zaio bizkarra,
hitz egin, entzun, jolasa bide
jarraituz ohitura zaharra
emozioak, ilusioak
zarete gure izarra
egizue irrifarra!!!!

Bertso honekin elkarriketari amaiera eman eta eskerrik asko neska-mutilak eskainitako tarte honegatik eta gure proiektuan erakutsi duzun interesagatik.

Urmendi Haur Eskola

Ainara Uranga
HHko irakaslea

Haur Hezkuntzako haurren ezaugarriak

Haur Hezkuntza haur eta pertsona gisa garatzeko etapa garrantzitsua da. Ikastolok garrantzi handia ematen diogu Haur Hezkuntzari, 0-6 urte bitartean errotzen baitira pertsonaren oinarriak.

Haurraren lehenengo bi urteak izango dira gorputzaren ezagutzarako eta komunikaziorako aldia nabarmen. Bigarrenetik zazpi edo zortzigarrenean, alderdi sinbolikoak berebiziko indarra hartzen du. Bertan, aurreko aldiarekin batera bere irudikapen, kezka eta beldurrekin aritzeko denborak beteko ditu eguneko momenturik gehienak. Aldi magikoa da maila guztietan. Mundua ezagutzeko modu mitikoa erabiliko du, pertsonaren historiaren hasieran erabiltzen zuten legez.

Lehenengo haurtzaro horretan dena da posible, umearen desio eta beharren arabera. Hura izango da zentroa. Egozentrikoa dela esango du helduak; ez, ordea, egoista. Kosta egingo zaio bere esperientzia zuzetik harago doan errealitateaz jabetzea. Erabateko subjektibotasunetik ikusiko du dena, eta, besteekin duen harremanen bidez, objektibotasunerako bidean jarriko da.

Bitartean, kosta egingo zaio arau eta kontzeptuak eta bere mundutik edo esperientziatik harago dagoena ulertzea. Ez da erregela (arau) aldia berarentzat, ezta hausnartzeko aldia ere. Bere ezagutza zentzumenetik etortzen zaion informazioaren arabera eraikiko du. Ikusi, ukitu, entzun, dastatu eta usaindu egin behar du dena, berez zentzumen guztiak erabili. Esploratu eta esperimentatu egin behar du ezagutza eraikitzeko; bestela, memoria gaitasunean soilik oinarrituko du ezagutza, hau da, izena jakin bai, baina ulertu ez. Soilik behin eta berririo esperimendatuz lortuko du errepresentazio sinboliko esanguratsua.

Bizi duen esperientzia guztietatik egingo ditu loturak. Elementuen eta gauzen arteko loturak egiteko gaitasuna du umeak. Bere bizitzaren bizipen desberdinetatik loturak egingo ditu, hau da, ikasi egingo du, etengabeko prozesu batean eta modu inkontzientean. Egiten duen bakoitzean, bere egitearen inguruko informazioa hartuko du hainbat jokabide automatizatu arte. Imitazioa izango da egitera eta ondorioz ikastera bultzatuko duen berezko gaitasun garrantzitsuenetarikoa.

Lotura esanguratsuek baimenduko diote lotura gehiago egitea, eta haren jokabidea baldintzatuko dute. Hori dela eta, garrantzitsua da eskola mailan bizi dituen esperientziak berarentzat onuragarriak izatea; hartara, ikastola elkargune positibo modura ikusiko du.

Alexander Barandiaran eta Iñaki Larreak idatzitako Ikastolen Haur Hezkuntzako marko pedagogikoan oinarritua

HAUR HEZKUNTZA 1

Elorsoro polikiroldegiko igerilekuan



Maiatzeko hilabetea, igerileku estalira joan gara lau egunetan uretan lagunekin gozatzeko helburuarekin. Ziurtatu dezakegu ondo pasa dutela.

Hemendik eskertu nahi genuke gurasoen parte hartzea, beraien laguntzarik gabe horrelako ekintzak ezingo genituzke aurrera eraman. Mila esker


HAUR HEZKUNTZA 1

Labore kooperatiban



Denda motak eta erosketak lantzen ari ginela eta, herrian sortu berri den eskualdeko Labore kooperatibara ezagutzera joan ginen. Bertan ikusi genituen Oartzunen eta gure inguruan ekoizten dituzten produktuak: barazkiak, ogiak, esnekiak, arrautzak... Hau suertea duguna! Bertan, gure inguruko janari goxoak eta osasuntsuak erosteko eta jateko aukera paregabea dugu!

HAUR HEZKUNTZA 2



HAUR HEZKUNTZA 3

Baratzean lanean



Kukuarekin batera iritxi da udaberria eta guk garaiko lanari ekin diogu. Arraztalo elkarteko kideek erakutsita baratza eder bat egin dugu. Bertan kalabaza, lekak, artoa eta babarrun aleak erein ditugu eta alberjiniak, tipulak, letxugak eta piperrak landatu. Datorren udaran eta udazkenean barazki goxo-goxoak izango ditugu.

HAUR HEZKUNTZA 3



Haurtzaro Ikastola · 2017ko ekaina

Joxan Arruabarrena
eta Idurre Arrazua

Haurra, gaztea eta bere portaeraren garapen egokia (garapen moralak)

Garapen moralaren teoria tradizionalak adostutako balioen, balio konbentzionalen eta arau sozial edo kulturalen eskuratzean zentratzen zuten umearen eta gaztearen moralitatearen garapena. Teoria kognitiboek umeei eta gazteei balio desberdinak eta pertsonen beharrak kontuan izanik egiten duten arrazoitze eta ulertze bilakaeran jartzen dute moralitatearen garapena.

Horrela, moralitatea estadio desberdinetan zehar garatzen dela esaten digute: 1. faseari estadio **aurrekonbentzionala** deitzen diote eta haurrak 3-6 urte bitartean ongia eta gaizkia bereizten hasten dira; 6-10 urte bitartean garatzen da 2. fasea, **konbentzionala**, non sozialki adostutako zuzena eta okerra aurkitzen eta eraikitzen duten; hirugarrenik, 10-16 urteen artean fase **post-konbentzionalarekin** egingo dugu topo. Fase horretan, konbentzioen gainetik gure moralitate pertsonala, gure arrazoitutako ideia eta aukerekin garatzen dugu. Hiru estadioetan zehar elkarrekintzatik ikasten dugu eta elkarrekintzak eramaten gaitu garapenera. Horregatik da fase guztietan helduaren, gurasoen, irakasleen... ekarpena benetan garrantzitsua: moralitatearen oinarriak heteronomo (kanpoan sortuak) izatetik autonomo (barnetik sortuak), pertsonal eta arrazoietan oinarrituak izatera bilakatzea egoki lagundua izan behar da.

Gure lan esparruari dagokionez, Lehen Hezkuntza trantsizio garai bat da: alde batetik, fase konbentzionala behar bezala osatzea da egin beharra, bestetik, gero DBHn osatuko den fase post-konbentzionalarean lehenengo urratsak egitea. **Kiva** proiektuaren ezarpena, **Golden 5** egitasmoan irakasleok jaso dugun prestakuntza eta barnera begiratzeko irakatsi digun Haziak proiektua gure etapan moralitatearen garapen egokiak duen garrantziaren adibide dira.

Eta, bukatzeko esan, zalantzarik gabe, guztietan helburuak bete ahal izateko denon **partaidetza** eta ekarpena ezinbestekoa dela, **ikasle, irakasle eta gurasoena**. Moralitatearen garapen egokia denon arteko eginkizuna delako, elkarrekintzan zoritzen den emaitza.



Zenbat sekretu dituen naturak!



Natura aztertzen hasi garenetik ohartu gara sekretu pila bat dituela. Batzuk, guk ikertu ditugu eta beste batzuk, erakutsi egin dizkigute.



Guk behatu ditugun Hipatia Lorategia eta Ibargain Parkean, bizidunak, bizigabeak, landareak, animaliak, zuhaitzak, zuhaixkak, belarrak, ornodunak, ornogabeak,.... aurkitu ditugu.

PUFF! Zenbat gauza!

LH 4 mailakoak ere etorri ziren eta landareak loreak zergatik eta zertarako dituzten ikasi genuen.

Ikasi dugun guztiarekin aldizkaritxo bat antolatu dugu: GURE PARKEA.





Haizea firin faran



HAIZEA FIRIN FARAN gaiarekin honako proiektu hau burutu dugu.

Hasteko, kometak egiteko materiala eskuratu behar izan dugu.
Ondoren, talde bakoitzak elkar lanean bere kometa eraiki eta
apaindu du.



Bukatzeko kometak frogatzera Altzibarko zubi ondora joan gara.

Eguraldia bikaina izan da, baina kometak hegan egoki egin
dezaten... **HAIZE GUTXIEGI!!!**

Hala ere, oporrei hasiera bikaina emateko aukera izan dugu.

PRIMERAN PASA DUGU!

LH3ko ikasleak



TXINPART 67

LH4ko ikasleak “Lost at Sea” unitatearen barne kokatzen den animalien inguruko deskribapen/azalpen testuak idatzi berri dituzte. Ikasle bakoitzak etxetik gustukoa duen animali basati baten inguruko informazioa ekarri, eta gelan azalpen testua idatzi ondoren gelako beste kideei aurkeztuko dizkiete. Zorionak egindako lan txukunagatik.

Within “Lost at Sea” unit, year 4 pupils have learnt how to write down information texts on their favorite wild animal. For that, each student has brought the necessary information from the internet and after having written the texts in class they will have to present it to their peers. Congratulations for all the good work done! Here below, two samples:



TOUCANS

They are birds.
Toucans live in Mexico, South America and Caribbean.
They have a large black tipped orange-yellow beak and a black bodied plumage with a white throat.
Toucans eat fruit, sometimes insects and lizards.
They lay eggs, Toucans live up to 20 years.
Toucans can make noises.
There are 40 different species.

Oihane

TIGERS

They are mammals.
They live in Asia.
They are white and black or orange and black and
they weigh 300 kilograms and they are 3.3 metres long.
They are carnivores.
They have 6 babies.
They hunt and run very well.
Tigers breed with lions and give birth to hybrids known as tigons and ligers.
By Helene E.M



“Pausorik pauso bidea eginez, geroa, irabazi behar dugu oinez”



Arbasoen pausoak



Pauso jakintsuak



Pauso musikatuak



Pauso moreak



Pauso gozoak



Gurpil arteko pausoak



Pauso ausartak



Pauso osasuntsuak



Pauso artistikoak



Laguntasun pausoak



Pauso majikoak

LEHEN HEZKUNTZA 6

Cogito, ergo sum

Los grandes pensadores, escritores, científicos y filósofos nos han dejado una gran cantidad de reflexiones muy válidas para orientarnos en nuestra vida.

Como decía el filósofo Paul Brunton :

“Esperemos que esta lectura sea válida para dar vida a nuestro tiempo y no para matar el tiempo”.

LA MÁQUINA DE HACER DEBERES

Un día llamó a nuestra puerta un tipo extraño: un hombrecillo ridículo, algo más alto que dos cerillas. Llevaba, cargada a la espalda, una bolsa más grande que él.

- Aquí traigo aparatos para vender- dijo.
- Enséñemelos- dijo papá.
- Esto es una máquina de hacer los deberes. Apretando el botoncito rojo se resuelven los problemas; el botoncito amarillo es para desarrollar los temas y el botoncito verde sirve para aprender geografía. La máquina lo hace todo ella sola, en un minuto.
- ¡Cómpramela, papá!- dije yo.
- Bueno. ¿Cuánto pide por ella?
- No quiero dinero- dijo el hombrecillo.
- ¡No trabajará sólo por amor al arte!
- No, pero no quiero dinero por la máquina. Quiero el cerebro de su hijo.
- ¿Está loco?- exclamó papá.
- Escúcheme, señor- dijo el hombrecillo, sonriendo-, si la máquina le hace los deberes, ¿para qué le sirve el cerebro?
- ¡Cómprame la máquina papá!- imploré-. ¿Para qué quiero el cerebro?

Papá me miró un instante y después dijo:

- Bueno, llévese el cerebro y no se hable más.

El hombrecillo me quitó el cerebro y lo guardó en una bolsita. ¡Qué ligero me sentía sin cerebro! Tan ligero que eché a volar por la habitación, y si papá no me hubiese agarrado a tiempo habría salido volando por la ventana.

- Tendrá que meterlo en una jaula- dijo el hombrecillo.
- ¿Por qué? – preguntó papá.
- Porque ya no tiene cerebro. Por eso. Si lo deja suelto volará hasta los bosques como un pajarillo y en pocos días morirá de hambre.

Papá me encerró en una jaula, como si fuera un canario. La jaula era pequeña, estrecha, no podía ni moverme. Las barras me apretaban, me apretaban tanto que...Me desperté asustado. ¡Menos mal que todo había sido un sueño!

Inmediatamente me puse a hacer los deberes.

Gianni Rodari, Cuentos largos como una sonrisa.

Nuestras reflexiones:

- El pensamiento nos hace libres, es un esfuerzo pero compensa.
- El pensamiento y la reflexión nos conduce por el camino en nuestra vida.
- Detrás de las máquinas y los avances científicos tiene que estar la reflexión de la persona.
- Si dejas que los demás reflexionen por ti no tendrás un buen futuro.
- Haz lo tuyo a poder ser sin depender de nadie.
- El pensamiento nos hace más libres para opinar, sentir, vivir..

Algunos libros de interés:

“Piruletas de filosofía” Ediciones SM

“Cuentos largos como una sonrisa” Gianni Rodari

“Cuentos para pensar” Jorge Bucay

“La flor más grande del mundo” José Saramago

“¿Y si las historia para niños fueran de lectura obligatoria para los adultos? ¿Seríamos realmente capaces de aprender lo que, desde hace tanto tiempo venimos enseñando?”

José Saramago

Euskarako elkartrukea 2016-2017



Manex Erdozaintzi Etxart Kolegioko ikasleak Hautzaron

Euskal Herriko mugaz bi aldeetako ikasleak gerturatzeko egitasmoa da Behe Nafarroako Manex Erdozaintzi kolegioarekin dugun elkartrukea. Ikastolen Elkarreak sustaturik, EKI proiektuak ikasleen arteko ezagutza eta harremanak sendotzeko unitate bat lantzen du DBH1. mailako Euskara irakasgaiari, eta aukera horixe baliatu dugu, aurreko ere, Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaldunak gerturatu, euskalkien ezagutza sakondu eta hango nahiz hemengo bizimoduaren berri izateko.

Iaz hasitako elkartrukearen bigarren edizioa da hau eta ikasleen aurreikuspen guztiak hautsi ditu. Eguraldia lagun, giro paregabea izan dute apirilaren 5, 6 eta 7an antolatutako ekintzetan parte hartzeko: perkusio-tailerra, euskal jokoak, Arditurdi eta Albalara bisita, ibilaldiak bidegorrian... Galdera batzuk egin dizkiegu, zer moduzko esperientzia izan duten jakiteko.

Elkartrukeak bete al ditu zure aurreikuspenak?

"Bai, uste nuena baino hobeto egon da, oso ongi pasa dut", [Oier Rico](#).

"Nire bizipenik gustukoena jende berria ezagutzea izan da, merezi izan du elkartrukean parte hartzea. Ibilaldietan oso gustura aritu naiz, beste urteetan egindako irteera berak izan dira, baina guztiz ezberdinak: jende berriarekin esperientzia oso onak partekatu ditugulako", [Ekiñe Arjona](#).

Zer izan duzu gustukoaren?

"Arratsaldeetan, lagunekin planak egin genituenean, izugarrizko harremana egin nuen, bai nire elkartrukeko kidearekin, bai beste ikasleekin ere. Horrez gain, ibilaldietan denekin hitz egiten aritzen ginen eta ederki pasatzen nuen", [Eitza Arriaran](#).

"Kidea ezagutzea eta lagunartea izan da onena, oso harreman ona egin dugulako bai nire kidearekin, eta bai beste kideekin", [Ibai Perez](#).

"Denean pasa dut ongi, baina nire elkar truke kidea ezagutzea izan da onena", [Olaia Felipe](#).

Ba al dago ezberdintasunik hango eta hemengo bizimoduaren artean?

"Bai, bera ikastolatik urrun bizi da eta ni, berriz, 10 minutura oinez", [Oier Rico](#).

"Barkoxen ia dena baserriak dira", [Eneko Bordes](#).

"Komunak desberdinak dituzte, janaria ere desberdina da eta bakoitzak bere etxea du; ez dira pisuetan bizi", [Janire Jacome](#).

"200 ardi ditu", [Xanet Zaldua](#).

ELKARTRUKAREN ITZULIA IKASTURTE AMAIERAN

Elkartrukea ez da oraindik amaitu. Ekainaren 19, 20 eta 21ean gure ikasleek Behe Nafarroako bizimodua ber-bertatik ezagutzeko aukera izango dute; egindako lagunak berriro ikusi, Donibane Garazi eta Kakueta bisitatu, irteerez gozatu...

Zer aurreikuspen duzu ekainerako?

"Nire helburua da, kidearekin ongi pasatzea, ikusi ez garen denbora honetan pasa zaizkidan gauzak kontatzea eta besterik gabe berarekin egotea. Nire aurreikuspenak ona dira, ongi pasako dugula uste dut. Dagoeneko hitz eginak dauzkagu egingo ditugun planak", [Irati Elvira](#).

"Leku zabalak, soro zabalak, herri txikiak..." [Xabat Olaiz](#).

"Herri txikiak eta baserri handiak", [Iraitx Maritxalar](#).

"Irteeretan oso ondo pasa dut, bidean lagunaren artean hitz egin eta harremanak sendotzeko aukera izan dugu eta nahiz eta bukaeran, joan behar zutenean, triste egon, egindako lagunak berriro ikusteko gogoz gelditu ginen", [Ane Barron](#).

Azkue Sariak

Olerkia: Nahi nuke, behar nuke

Margolaria
izan nahi nuke,
izan behar nuke,
aurrean dudan
tristuraren beltzez estalitako mundua,
nire ilusioaren pintzelaz
pozaren kolorez janzteko,
apaintzeko,
alaitzeko...

Anne Arrizabalaga



Poesia: Itsasoa

Txikitatik ezagutzen dugu elkar,
eta lehenengo egunetik lagunak izan gara.
Bera gerturatu zen nire oinetara,
eta kili-kili egin zidan,
barrez hasi nintzen.
Gerturatu nintzen
eta aparrez betetako olatu batek aurpegia zipriztindu zidan;
zapore berria...

Libe Gargallo



Prosa: Paradisuan, bihotza erdibituta

Oraindik ere gogoratzen dut biok jolasean, inongo arazorik edota
hesirik gabe ibiltzen ginen garai hura, eguzkiak bezainbeste argi
genuen garai hura, saltoka eta brinkoka matxinsaltoak bagina
bezala ibiltzen ginen garaia. Siriako herrixka batean bizi ginen,
Suluk lehorrean hain zuzen, udazkeneko hosto eroria baino leku
lehorragoa, baina hain zen atsegina bertan egotea...

Lohizune Telletxea



Gure esperientzia Britainian



DBH 3. mailako 32 ikaslek Gwiseniko Diwan eskolarekin antolatutako elkartrukean parte hartzeko aukera izan dute. Martxoaren 19tik 25era iraun duen Britainiako egonaldian, bertako kultura, hizkuntza eta bizimodua ezagutzeko hainbat ekintza egin dituzte. Hona hemen, gure ikasleen iritziak.

Familia:

Hasieran gehienoi zaila egin zitzaigun familietan egokitzea, deserosoa zen, lehenengo egunean batez ere. Zaila zen beraiekin komunikatzea, izan ere, ez genuen askorik ulertzen eta ez genekien ongi hitz egiten, gainera, beste etxe bat zen, jende ezezaguna, kultura ezberdina... Hala ere, azkar ohitu ginen eta bigarren eguna askoz erosoago izan zen. Zortea izan dugu familiekin eta gehienok gustura egon gara. Bertakoek asko lagundu digute: ulertzen saiatuz, gauzak ongi azalduz, gustuko genuen janaria jarritz, eroso sentiaraziz...

Britainiak emandako ekarpenak:

Britainiako elkartrukea egin baino lehen komunikatzeko zailtasunak edukiko genituela uste genuen, baina gure egunerokotasunean frantsesa zubi hizkuntza izatean, pila bat ikasi dugu. Gainera, gazteen arteko bizikidetzatza sendotzeko ere baliagarria izan zaigu, bai euskal gazteekin eta bai Britainiako gazteekin ere. Hori gutxi balitz, beste kultura bat ikasteko ere baliagarria izan zaigu, paisaia, leku ospetsuak ikusteko eta bretoien bizimoduaz informatzeko. Hain zuzen ere, horixe izan da gehien harritu gaituena, jateko ohiturak, ordutegia, aisialdian egiten dituzten ekintzak... Oso sakabanatuta bizi dira elkarrengandik; gu, ordea, alderantziz, kalean gehiago ibiltzen gara, askotan geratzen gara herriko plazan.



Egitaraua:

Igandean, goizean goiz aterata ginen Britainara. 12 orduko bidaia, itxuraz luzea, baina, lagun artean, segituan igaro zen. Iritsi ginenean, bretoiak ezagutu genituen. Denok, ilusioz beteta, etxerantz abiatu ginen.

Astelehenean, goizean goiz Gwisseni ezagutzera joan ginen. Udaletxean jaso gintuzten, eta eliza eta hilerria ere bisitatu genituen. Horrez gain, bertako gaztelu bat ikusi genuen, oso ederra zen. Eskolan ederki bazkaldu, eta bertako kultura oparora ezagutzen pasa genuen arratsaldean bretoiekin batera.

Asteartean, Île de Batzera joan ginen itsasontziz. Bertan faro bat bisitatu genuen, kostaldean bazkaldu eta hainbat souvenir erosi genituen Roscoff herri arrantzalean. Gauean, festa handi eta oso dibertigarri bat egin genuen, bertsoak, dantzak... egin genituen.

Asteazkenean, familiarekin pasa genuen eguna. Batzuk, eskalatzera joan ginen, eta beste batzuk, igeri egitera. Oso egun polita izan zen.

Ostegunean, Karazera joan ginen, eta harrera ofiziala egin ziguten. Jada 22 urte dira Karaz eta Oiartzun senidetuak daudela!

Ostiral goizean, Ozeanopolisera joan ginen, arrain ezberdinak ikustera, eta, arratsaldean, duela gutxi estreinatutako teleferikoa



baliatuz, Brest hiriko itsasadarren bestaldera igaro eta hango Mediateka berria bisitatu genuen. Gero, Bresten erosketa batzuk egin eta itzuli egin ginen.

Azken egunean, larunbatean, goizeko bederatzietan hartu genuen autobusa, tristura eta malko artean. Hona iristean, ezin genuen sinistu jada bukatua zela astea.

Gure egonaldian, bertako paisaia ezagutzeko aukera izan dugu eta gure paisaiarekin alderatuta nahiko desberdina dela konturatu ginen. Izan ere, Euskal Herrian mendi asko ditugu eta bertan ez ziren mendi ugari ikusten. Hala ere, Bretainiako punturik altuenera igo ginen, Saint Michel mendira hain zuzen ere: 385m-ko garaiera du.

Bertako kosta gurearen desberdina da, beraienak ozeano atlantikora ematen duelako eta gureak, berriz, Bizkaiko golkora. Gainera, bertako arroak oso handiak dira gureekin alderatuta. Bestetik, han haizeak jotzen du etengabe, eta zeruan uneoro hodeiak nagusi dira. Gainera, urtaroen artean, ez dago tenperaturaren diferentzia handirik.



Kultura:

Bretainiako bidaiari esker, bertako kultura ezagutzeko aukera izan dugu, gure kulturen artean hainbat ezberdintasun egon arren, nabarmenenak edo esanguratsuenak hizkuntza eta musika izan dira.

Hangoek bretoiarekiko duten ikuspegia eta guk euskararekiko daukaguna desberdinak direla konturatu gara. Han, oso familia gutxi hitz egiten dute bretoiarek eskolatik kanpo, eta hori oso arraroa egin zaigu, hemen beti euskaraz hitz egiteko joera dugulako. Baina, hala ere, bretoiara ama hizkuntza duten familiak ere aurkitu ditugu eta oso polita izan da euskararen eta bretoiaren esperientziak elkarrekin partekatzea.

Bestetik, musika dela eta, han tipikoak diren musika tresnak, hemengoen desberdinak direla konturatu gara. Han, gaita (*cornemuse*), dultzaina, (*bombarde*)... haizezko instrumentuak oso tipikoak dira, hemen txistua, danborra... diren bezala.





DBH 3

Kongoren aldeko mugikor bilteta

DBH 3. mailako ikasleok Alboan gobernuz kanpoko erakundearen kanpainan hartu dugu parte azken egun hauetan Kongoko gatazka dela eta. Kanpainaren helburua mugikor zaharrak edo erabiltzen ez ditugunak biltzea izan da. Izan ere, mugikor hauek barnean dituzten mineralak edo mineralen gehiengoa Kongotik dator. Ondorioz, 90.hamarkadan gatazka sortu zen Kongo ekialdean mineral hauekiko interesa medio.

Mugikorrak egiteko behar beharrezkoak diren mineralen (urrea, wolframioa, koltana, eztainua...) %80a dago Kongo ekialdean. Prozesu osoa talde armatuen kontrolpean dago, hau da, mineralen erauzketatik hasi eta salerosketa bukatu arte. Honek talde armatuei botere ekonomiko eta politikoa eskuratzen laguntzen die.

Ondorioz, minetako langileen lan baldintzak oso txarrak dira (segurtasunik ez dute, soldata eskasa, lan ordu asko...) eta esan dezakegu ia esklabotza egoeran daudela. Horrez gain adin txikikoek edo haurrek lan egiten dute, eta beraz haurren esplotazioa ematen da. Gainera, kontrol sozialak lortzeko talde armatuek beldurra zabaltzen dute herritarren artean, horren adibide urtero 100.000 emakume bortxatzen dituzte.

Amaitzeko, Kongoko gatazkaren ondorioz hainbat hildako eta beste hainbat errefuxiatu daude. Egunetik egunera datuak geroz eta handiagoak dira. Azken 15 urteetan 4.000.000 pertsona baino gehiago hil dira eta beraz gatazka hau bigarren mundu gerra ondoren gertatzen ari den gatazkarik odoltsuena da.

Jasotako mugikorrak Alboan erakundeari emango dizkiogu, haiek mineralak birziklatu eta lortutako diruarekin Kongon dituzten proiektuak haurrera atera ahal izateko. Mugikor mordoak bildu dugunez, eskerrik asko zuen laguntzagatik.

Agur ikastola!



Iritsi da garaia, bagoaz hemendik, batzuk pena handiarekin, besteak pozaren pozez. Bakoitzak bere oroitzapen on eta txarrak eramango dituen arren, denok eramango dugu elkarrekiko sortu dugun laguntasuna, bizitutako momentuak eta elkarrekin egon ginen lehen aldia.

Nahiz eta gehienok, edo guztiok hobeto esanda, ikastolako lehen egunaz ez oroitu, badakigu gure bizitzako etapa berri bat sortu genuela, behar beharrezkoa den bide bat. Egun horri esker, askok eta askok 15 urte hauek elkar jarraitu ditugu, eta beste hainbat lagun bidean topatu ere..

Hasieran HH-ko ibilbidea Roxail Otegii, Ixiar Lekuona, Ana Aranburu eta Maxux Retegirekin egin genuen. Gero, LH1-era pasatu ginen, Marilo Zubizarreta, Ainara Uranga, Amaia Cardona, Arantxa Lopez eta Itsaso Goikoetxearekin. Jarraian, LH3-LH4-n, Ixiar Burugain, Izko Lekuona, Miren Arruabarrena eta Idurre Arrastuarekin jarraitu genuen. LH5-LH6-n Joxan Arruabarrena, Elias Arizmendi, Ander Lizarralde, Koro Uria eta Eva Morenorekin hasi ginen azterketak apunterik gabe zer ziren ezagutzen.

DBH, aldiz, Iñaki Lertxundi, Josu Arotzena, Josune Saizar, Ander Mariezkurrena, Maribi Alonso, Mariaje Frutos, Xabi Solano Maider Lekuona, Leire Lekuona eta Antton Kazabonekin hasi genuen.

Azkenik, gure ibilbideari amaiera eman diogu Jaione Ugaldebere, Donibane Azkarate, Kristina Boan, Pilar Altuna, Maite Gomez, Madalen Usabiaga, Aritz Gonzalez, Ramon Gorrotxategi, Sohalge Arbelaitz, Ariane Retegi, Patxi Lizarraga eta Argiñe Oiarbide irakaslerekin.

Askok ezetz esango duten arren, denok elkar maitatzera iritsi gara, inoiz pentsatuko ez genuenekin ere harremana burutu dugu. Azken finean, hamabost, bi edo zortzi urteko harremanaren ezberdintasunak ez duelako garrantzirik, inguruan, giro ona, laguntasuna eta elkarri diogun atxikimendua kutsakorra izaten baita.

Beraz, luzatu gabe, izugarriak zarete, beti gogoan eramango zaituztegu, DENOI. Nahiz eta bide ezberdinak hartu, gure bihotzaren zati txiki bat zuentzat.

Motibazioa eta heziketa

Seme-alabak heztea gurasoen eskubidea eta betebeharra da. Galderak eginez, iruzkinak eta eguneroko bizitzan eredu izanda, familiarik bertatik eragin daiteke seme-alabek ikasteko jarrera izan dezaten. Gainera, motibatu eta dituzten gaitasunak indartu daitezke balioen garapena bultzatuz, hala nola egindako lanak ematen duen poza, norberaren hobetze nahia, autonomia eta askatasuna.

Ukaezina da motibazioa dela egungo hezkuntza eremuan eragin gehien duten faktoreetako bat. Neurri handi batean, motibazioaren araberakoa da emaitza akademikoa eta horregatik oso garrantzitsua da irakasleen eta ikasleen motibazioa lortu eta eustea.

«...nik ezin dezaket gehiagorik egin -zioen amak- mota guztietako zigorrak, akademia zein etxeko irakaslea, errietak, sariak... baina alperrik. Ikasiko duelako promesa aise eman, baina lehengo lepotik du burua. Ez du ikasi nahi, eta ez dakigu zer egin...». Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle baten gurasoei izandako elkarriketa honek aski ondo laburbil dezake motibaziorik ezak eragin ditzakeen etsipena eta desesperantza; izan ere, gurasoei eta, oro har, hezitzaileei askotan ikasleen motibazioa azaltzen zaigu aldaratearen ezaugarri ezegonkor eta negoziatzeko gisa.

«Zertarako ikasi, gero lanik ez badut topatuko?», diote hainbat ikasleek. Egia da nerabeek ez dutela izaten epe luzerako aurreikuspena; normalean unean unekoa bizitzen dute. Batzuek fantasia handiak izaten dituzte euren buruetan; esaterako, pertsonaia ezaguna izateko nahia nerabe askoren artean errepikatzen da. Gero, gazte horiek mundu horretatik jaistea nahiko zaila izaten da. Nerabeek euren lekua topatzea da garrantzitsua, eta, horretarako, familiak eta ikastetxeak funtsezkoak dira.

Motibazioa hezigarria da, baina, sentimenduen munduari oso lotuta dagoenez, azken haiek aintzat hartuz baino ezin da sendotu.

Maribi Alonso eta Pilar Altuna-k egokitutako testua, ondorengo informazio-iturrietan oinarrituta:

www.ehu.eus/ikastorratza/1_alea/motibazioa.pdf
ataria.eus/tolosalde/1485973056295
www.bilbao.eus/

Askatasunean preso



June Ibarguen

Jendeak guztia kontrolatu nahi du. Askatasunari mugak eta hesiak ezarri nahi dizkio. Askatasuna kartzela bihurtu nahi dute, aske garela esan eta askatasun horretan preso hartu nahi gaituzte. Erabakitze eskubide osoa dugula esaten digute, eskubide osoa, bai, baina haien erabakiarekin bat badator bakarrik.

Askatasunean loturik gaude, baina askatasun ezari loturik. Aske garela esaten diguten arren, aurkakoa adierazten digute. Askatasun kontzeptua zalantzan jartzen dute. Aske izatea eta preso egotea guztiz aurkako kontzeptuak direla badakigu, baina askotan zalantzan jartzen dugu aske ala preso gauden.

Beharbada ez dira ohartzen, edo beharbada bai, baina gu kontrolatu nahi izateak askatasuna kentzen digu. Harro abesten dugu ez garela txoriari hegoak ebakitzeko gai, baina hego horiek lotzea ez al da gauza bera? Beharbada ez. Lotzeak askatzeko aukera ematen du, baina aske uzteko asmorik ez dugun bitartean gauza bera izango dira.

Askatzen ikasteko lehenengo lotzen jakin behar da, baina lotzen ikasteko ez da askatzen jakin beharrik. Baliteke hori izatea desberdintasuna.

Nik ez dakit aske izatea zer den, baina aske izan nahi dut, edo hori uste dut behintzat. Baina aske izan nahi dudala esaten dudanean ez dut askatasunean preso izan nahi dudala esaten. Askatasunean aske izan nahi dut. Horretarako, aske uzten nauenari lotzen natzaio, askatasunari loturik egoteko eta ez askatasunean loturik.

Eskolaz kanpoko ekintzak

Amaitu da 2016/2017 ikasturtea. Urte berezia izan da Haurtzaro Ikastolaren 50. urteurrena ospatu baitugu eta ekintza mordo egin baititugu. Bestalde, emaitza aldetik ere, kurtso bikaina izan dugula aipatu behar dugu:

- Haurtzaro Dantza Taldeko dantzaria den Izaro Telletxeak, hiru dantza txapelketatik hiru irabazi ditu. Gipuzkoako txapelketan berriz, bigarren postua lortu zuen.
- Ane Asensio, Haurtzaro Atletismo taldeko kirolariak, urrezko domina lortu zuen WS5F kategorian, ekainaren 10-11an, Granadan ospatu zen Slalom txapelketan. Urrezko domina lortzeaz gain, kronometratutako saioan Espainiako errekor berria ere egin zuen. Kanporaketa saioan zilarrezko saria jaso zuen.
- Amaiur Errazkin eta Ane Etxebeste, Haurtzaro Atletismo taldeko kideak ere bikain aritu dira aurtengo denboraldian, Gipuzkoako eta Euskadiko iraupen luzeko probetan emaitza bikainak lortuz.

Nahiz eta Haurtzaroko eskolaz kanpoko ekintzetan ez izan, ezin ahaztu ditugu gure ikasle diren Paul Oiartzabalen eta Ekhiñe Rivasen kirol emaitzak. Paul Oiartzabal ederki aritu zen Granadako Espainiako freestyle ski txapelketan. Ekhiñe Rivasek aldiz txirrindularitzako pista modalitateko Espainiako txapelketa irabazi zuen.

ZORIONAK DENEI!!!



Eskola Kirola

SKATE eta SCOOTER saioak, LH6koentzat. Iristaketa kirolak probatzeko aukera izan genuen Muturreko Kirolak elkartearen eskutik. Skate Parkearen erabilera ere erakutsi ziguten. Ederki pasa genuen!



Dantza saioak: LH 3-4-5ko hurrek Aerobik eta zunba ikasteko aukera izan dute Uxue Flamarique eta Ixiar Oriaren eskutik. Gorputza ederki astindu genuen dantza saioan! Ikasleek eta hezitzaileek ederki pasa genuen!



Abesbatza eta musika emanaldia

Maddalen Dorronsoro hezitzailearekin urtean zehar landutako kanta guztietatik batzuk aukeratu eta ikasturte amaierako erakustaldian eskaini zizkiguten. Lehenik abesbatzakoen txanda izan zen eta, ondoren, HH2 eta HH3koena. Oso ondo pasa genuen!



Antzerki emanaldiak

Saioa Aizpurua, Maider Galarza eta Lur Kortaren gidaritzapean landuko obrak izan dira. Bi egunetan izan ziren emanaldiak eta egun bakoitzeko bi antzerki ikusi ahal izan genituen. Lehen saioan, LH4koak eta LH5-6koak igo ziren taula gainera, eta bigarrenenean LH1-2koak eta LH3koak.



Datorren ikasturterako eskaintza berriak

Orain, begirada datorren ikasturtean jartzeko unea da. Ohiko eskaintzez gain, 2017/2018 ikasturterako lau ekintza berri eskaintzeko aukera dugu: **euskal kultura eta sormena, gitarra, mekanografia** eta **parkourra**.

Euskal Kultura eta Sormenean Zuberoako herri antzerkia, pastoralak, lantzea da helburua, Zuberoako beste Ikastolekin batera. Pastoralaren zati bat Hautzaro Ikastolako ikasleek landuko lukete eta beste zatia Zuberoakoek. Bakoitzak bere zatia landuta, guztiak elkartu eta emanaldi bat sortuko lukete.

Gitarra, Arkaitz Miner musikariak proposaturiko ekintza da. Erritmoa, kantua eta musika lantzea du helburu, baita euskal musika eta atzerrikoaren ezagutzak eta kantuen sormenerako baliabideak eskaintzea ere.

Mekanografia ere izango dugu hurrengo kurtsoan. Ikasleek ordenagailuak denerako erabiltzen dituztela kontuan hartuz eta etorkizuneko idazketa tresna horixe izango dela jakinik, ikasgeletan lantzen dena jolas modura indartzea litzateke ekintza horren helburua.

Azkenik, ikasle talde baten eskaeratik abiatuta, parkourra eskainiko dugu Lotze Add elkartearen eskutik. Talde horren helburua ekintza hau praktikatzeko interesa duten ikasleei parkourraren inguruko ezagutzak eta teknikak irakastea da, modu seguru eta arduratsuan.



BatZUK

Korrikako eguna ilusio handiz bizitu genuen. Alde batetik, eguerdi aldean abiatu ginen Iturriotz nahiz Landetxerantz, lekukoa hartu eta euskararen alde korrika dena eman ahal izateko.

Irribarre bat ahoan genuela generaman lekukoa, eskuttuneko kideen artean pasatuz ibili ginen. Iturriotzetik Altzibaraino bidea burutu genuen, eta gure atzean euskararen alde egiten zuten jende kopurua handituz joan zen. Horrek ematen zigun poztasuna ikaragarria izan zen, herri txiki batek duen handitasuna demostratu genuen.

Lekukoa eraman genuen askoren iritziak hauxek dira:

“Bizipoza, holako gauza ttikiyak bizitzen jarraitzeko indarra mateute”

“Gure hizkuntz polit honen alde holako ekimen batin parte hartzia ohore bat”

“Esperientzia ikaragarriya”

Egindako korri guztiaren ondoren, Xabier Alegria etorri zen arratsaldean bere historia kontatzera, bere bizipenak, nola sortu zen Korrika, eta zer egin behar eta ze gauzetatik pasa behar izan zuten hori burutzera iristeko. Gure artean gauzak argitzeko, galdera batzuk egin genituen, horrela berarekin harremanaz.

Eguna bukatzeko bi taldetan banatu ginen, txalapartako taldean eta karaokearenean. Txalapartan, bi neska etorri ziren hau jotzen erakustera, eta topera pasatu zuten barre eta musikaren artean. Eta berdin karaokean.

Egun bikaina izan zen!

Haurtzaro, ikastola jasangarria da!



Haurtzaro Ikastolak ikastola jasangarria dela ziurtatzen duen aintzatespena jaso berri du. Zorionak, Haurtzaro! Eta zorionak aintzatespena lortzeko lanean aritu diren kide guztiei!

Ingurumena ez da gai berria Haurtzaro Ikastolan. Ikasleekin lantzen den zehar lerroetako bat da, eguneroko funtzionamenduan oso presente dagoena eta Ikastola hobetzeko bidean kontuan hartzen dena.

Agenda 21 egitasmoan, 2005az geroztik

Haurtzaro Ikastolan beti egon da ingurumen gaiari buruzko kezka eta kultura. Garai batean, Kutxaren ekimena zen Berde-Berdea egitasmoan parte hartzen zen, baita Udalak antolatzen zituen ekimenetan ere. 2005ean, Agenda 21 egitasmoan parte hartzeko hitzarmen ofiziala izenpetu zen Jaurilaritzarekin.

Agenda 21 egitasmoan parte hartuta, Ikastolak hiru eremutan hobekuntzak egiteko konpromisoa hartu zuen:

- Curriculum. Curriculumean ingurumen gaiak lantzeko modua hobetzea eta berritzea.
- Zentroaren kudeaketa: energia aurrezteko, paperaren erabilera murrizteko, irisgarritasuna hobetzeko, hondakinak egoki sailkatzeko, etab. hobekuntzak eta berrikuntzak proposatzea.
- Parte-hartzea. Komunitate osoaren ideiak eta asmoak biltzea.

Curriculumaren alorra Ikastolako ikasle guztiekin lantzen da, maila bakoitzak bere neurrian. Haur Hezkuntzakoek ekintza zehatzetan parte hartzen dute, baina LH eta DBHko ikasleen parte-hartzea handiagoa izaten da. Besteak beste, sentsibilizazio saioak eta tailerrak egiten dira LH eta DBHko mailetako ikasleekin.

Lorpen handiena da Agenda 21 ez dela momentu puntaletara mugatzen. Ikastolen Elkarteko EKI materialean eta Haurtzaro Ikastolako ekintza osagarrietan ere txertatuta dago, adibidez, baratzera edo gaztandegira bisita egitea.

Urtez urte, pausoak ematen

Agenda 21 egitasmoak urteroko lanketa bat eskatzen du. Lehen egitekoa ikasturterako gaia aukeratzea izaten da eta, normalean, Oarsoaldeko ikastetxeen arteko koordinazio taldeak hautatzen du.

Ondoren, Agenda 21 egitasmoko protokoloa martxan jartzen da. Urtero, gaia lantzeko bost fase lantzen dira: motibazioa eta sentsibilizazioa, diagnostikoa, ekintza plana, komunikazioa eta ebaluazioa.

Agenda 21 ekimenaren barruan, hauek dira Haurtzaro Ikastolak burututako ekintzetako batzuk:

- Hondakinak: egoki sailkatzeko jarritako edukiontzia, landutako kanpaina eta konposta makina
- Energia kontsumoa murrizteko neurriak: anfiteatrora ematen duen fatxadaren jarritako bigarren fatxada (2015), energia berriktarriak sustatzeko terrazan jarritako panel fotovoltaikoak
- Elikadura: elikadura tailerrak, hamaiketako osasuntsuak (fruta...), baratze tailerrak, bisita...
- Irisgarritasuna: igogailua (2014) eta arrapalak



- Mugikortasuna: ikasleek Xorrola erabiltzeko landutako hitzarmena, ikasleak Ikastolara oinez etortzeko sortutako Oinbusa esperientzia (2009), bizikletaz etortzen diren ikasleentzako bizikleta gordailua...

Azpimarratzekoa da, halaber, Agenda 21ek Ikastolako komunitate osoa duela jomugan; beraz, oso garrantzitsua da ikasle eta irakasleek gain, gurasoek ere ekimenean parte hartzea. Guztiek parte hartzen dute ingurumen batzordean, eta, komunikazioa ere helburu izanik, lehen egitekoa informatuta edukitzea da. Horregatik, urteroko Batzar Nagusian, bileretan, prentsaren bidez eta blogetan maiz lantzen dira Agenda 21eko gaiak.

Herriarren kezkekin bat

Ikastetxetik harago, herriko dinamika bat bezala ulertzen da Agenda 21. Udalak ere interes handia erakutsi ohi du ingurumen gaietan eta laguntza handia ematen du, besteak beste, gaiak lantzen laguntzeko aholkulariak jarritz.

Herritarren artean ere sumatzen da sentsibilizazio handia dagoe-la, elikaduraren inguruan, adibidez. Aurten, Erika eta Labore egitasmoak sortu dira, eta Haurtzaro Ikastolak naturaltasun osoz bilatzen ditu sinergiak eta elkarlanak, Agenda 21aren barruan, pausoak elkarrekin emateko.

Datozen urteetarako erronkak

2016/2017 ikasturtean, aintzatespena lortzen laguntzeko, Talde Berdea deitu den ikasle taldea sortu da. Ikasle horiek oso lan ona egin dute, eta erronketako bat da talde hori Haurtzaro Ikastolako talde egonkor bilakatzea. Izan ere, Agenda 21 egitasmoa ingurumen gaiei buruzko sentsibiltatea handitzeko eta ohitura jasangarriak lantzeko tresna da, eta oso garrantzitsua da ikasleak egitasmoaren erdigunean egotea.

2005etik egindako bidea oso emankorra izan da. Agenda 21 aintzatespenaren bidez, Haurtzaro Ikastola ikastetxe jasangarria dela aitortu zaio eta, aurrerantzean ere, orain arteko konpromiso maila berarekin jasangarritasunaren alde modu egoki eta iraunkorrean lan egiteko konpromisoa berresten du.

Eskerrik asko, Haurtzaro!

Oiartzunen urte luzez apaiz egon zen Jose Mari Ekuador-en bizi da gaur egun, misiolari, komunitate indigenak laguntzen. Elkartasunez, Olentzerotan jasotako dirua bidali genion. Hauexek bere esker oneko hitzak:

Kaixo, Arantza!!! Kaixo, lagunak!!!!!!!!!!!!!!

Jaso dut zure korreoa eta zuen laguntzaren berri ona. Esker mila!!!! Haurtzaro Ikastola egiten duzuen guztiei eta, baita ere, Oiartzun ene Herri maiteari.

Inoiz ez bedi agortu zuen solidaritza, inoiz ere zimurtu zuen bihotz zabala!!!!!!!!!!!!!!
Jaso bizi-poza!!!!!!!!!!

Besarkada haundi bat danoi eta izan ongi!!!

Joxe Mari.



Lexoti jaialdia, saio beroa eta giro paregabea!



Lexoti jaialdiaren 36. ekitaldia maiatzaren 25ean izan zen. Ohi denez, jaialdiak bi zati izan zituen: lehen zatian, bertso paperak abestu eta saritu ziren; eta, bigarrenean, bat-bateko saioaz gozatu ahal izan zuten bertaratutako ikasleek.

Lexoti bertso paper lehiaketako sarituak:

LH 6ko txapelduna Haitz Aranburu izan zen, eta saria Josu Ibarguren ikasle ohi eta Bertso Eskolako kideak eman zion.

DBH 1eko txapelduna Nahia Odriozola izan zen, eta saria Jokin Irastortza ikasle ohi eta Bertso Eskolako kideak eman zion.

Bi sari horietaz gain, Gipuzkoako bertso paper lehiaketako aipamena jaso zuten Aitor Iparragirreren bertsoak ere sarituak izan ziren.

Txapeldun guztiek beren bertso sarituak abestu zituzten.

Bat-bateko saioa

Bat-bateko saioan LH 6 eta DBHko Bertso Eskolako kideek parte hartu zuten, Josu Ibarguren eta Jokin Irastortzarekin batera. Aurten, Bertso Eskolako ikasleak Iraitx Mateo eta Jon Otegiaren eskutik aritu dira ikasten aurtengoan.

Ariketa ezberdinak egin ondoren, oinak emanda, habanerak osatu, asmakizunetara jo-lastu, gaia emanda bertsoa osatu, bukaera emanda bertsoa osatu, ofizioka aritu... denek batera abesti bat abestuz bukatu zen saioa. Zorionak parte hartu zuten guztiei!

Laiene Aranburuk Urruzuno saria irabazi du



DBH 3ko Laiene Aranburu ikasleak Urruzuno sariko poesia saria eskuratu du. Bere poesia gaixorik dagoen pertsona baten paperean sartu zen, eta, zailtasunak zailtasun, egunerokoa bizi eta hartaz gozatzearen garrantzia nabarmendu zuen.

Saria jasotzea «oso pozgarria» izan zela eta «ilusio» handia egin ziola esan digu. Saria bera ere berezia da: «Udaleku batzuetara joateko gonbidapena jaso dut, eta, bertan, Urruzuno saria irabazi duten beste idazle gazte batzuekin elkartuko naiz. Oso polita izango da, eta gogotsu nago». Zorionak, Laiene, eta gozatu jasotako sariaz!



Easo Motor

FordFocus




Salmenta + Tailerra + Txapetan + eskaintza hobereak
Lintzirin Poligonoa, 10 - 20180 OIARTZUN
© 943 26 04 26 / 943 26 03 91



GEZAK S.C.
KIROLDEGIEKAKO KUDEAKETA
GESTION INTEGRAL POLIDEPORTIVOS



ELORSORO KIROLDEGIA • Elorondo, 24
T. 943 492 522 • M. 923 761 352
F. 943 493 561 • gezak@telefonica.net
20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)



Hasiko gera aipatzen
gure historia kontatzen
bizitakoa kantatzen
aro berri baten sartzen

Urteak pasa dira
eta bagoaz tira
baina honen harira
kontatuko begira

Oain DBH bua txabal!
Ai Iñaki Maribi
Josune ere urduri

Ondoren gukin Sohalge
ordutik aldatu gabe
Ramon sartu katian
dabil gure artian

Haur hezkuntza lehendabizi
ez ginen gu gaizki bizi
zuzenduz zuengana
hiruroi muxu bana

Roxali Ixiar Ana
zuek ez ahaztu iragana
lehen hezkuntza badator
zuek lasai egon hor
goxotasun algara
gogoan dut Ainara

Alboko gelan Marilo
ezin genuen egin lo
eta Arantxa azkenik
etzenun falta dohairik

Hirugarren maila
egin zitzaigun zaila
Ixiar Izko Miren
gutatik zein alferren
gero Idurre heldu zen
Elias Koro Joxan
gutaz gauz onak esan

Eta gaurkoei zer esan
gauza asko dizkigute eman
Kristina Jaione Doni
Pili falta zaio honi
eta muxu bana tori

Denak ez gera lagun
baina bihotzak bigun
eta holako egun gehio euki
ditzagun
GAUR ZORION DAGIGUN!





Haurtzaro Ikastola
bizitzarako hezkuntza

DBH4 - 19. promozioa - 2017